



Aniztasunaren plaza

Etxarri Aranazko festetako egitarauan Munduko Arrozak ekimena, Plazaz plaza pilota partida eta beste hainbat ekitaldi daude / 10-14



EH Bilduk eta PSOEek gora egin dute, eta boto baliagarriak Geroa Bai eta UPN kaltetu ditu / 2-3

Hamazazpi ekintzaileren ekimenez dozena bat enpresa sortu dira lehen urte erdian / 5

Etxarri Aranazko Udalak 40 autorendako aparkalekua zabalduko du gaur / 7

Urdiainen jokaturako Sakanako Haur Triatloiak bi garaipen utzi ditu Sakanan / 17

Kings League Sakanara iritsi da gaztetxo talde batek Lakuntzan antolatutako txapelketari esker / 18-19

Amico konpainiaren azken antzezlanak, 'Kinki Games', larunbatean, Etxarrenen / 23

'Azken fakirra?' ikuskizunaren aurre-mustutzea egin du Zirika Zirkusek, Irañetan / 23



Komunitatearen parte hartzearekin adinekoen bakardadeari aurre egingen dion proiektua lantzen hasi dira / 15

EH Bildu nagusi

Koalizio subiranistak %4,6 boto gehiago eskuratu diru. PSOEren babesa %16,4 handitu da ibarrean. Sumarren ondoren, sakandarrentzat PP laugarren aukera izan da

SAKANA

	ESP23	NAF23	ESP19
EH Bildu	4.144	3.743	3.962
PSN-PSOE	2.194	1.056	1.885
Sumar	1.149	376*	1.992*
PP	845	330	-
Geroa Bai	786	2.667	1.687
UPN	505	894	-
Vox	200	145	195
Besteak	24	51	35-
NA +	-	-	1.321

*Konparaketa Zurekin Nafarroa eta AD-IU-EQUOrekin egin da

BOTO ERABILGARRIRAKO DEIALDIEK KALTE EGIN DIOTE GEROA BAIRI ETA LAU URTETAN BOTOEN %53,41 GALDU DITU




BIGARREN LEGEGINTZALDIA EGINEN DU KONGRESUAN EH BILDUKO BEL POZUETA FERNANDEZEK. KOALIZIOAK 58.686 BOTO ESKURATU

ZITUEN ETA, SOZIALISTEN ATZETIK, NAFARROAKO BIGARREN INDARRA DIRA.

SAKANA




HERRIKA



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com


KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea




ARRUAZU

	2023	2019
EH Bildu	52	37
PSN-PSOE	10	3
Geroa Bai	7	17
Sumar	4	12
Vox	3	3
PP	1	-
UPN	1	-
Bestelakoak	-	-
NA +	-	3




LAKUNTZA

	2023	2019
EH Bildu	300	293
PSN-PSOE	125	112
Geroa Bai	60	129
Sumar	49	100
PP	38	-
UPN	22	-
Vox	9	3
Bestelakoak	1	3
NA +	-	45



ARBIZU

	2023	2019
EH Bildu	349	310
Geroa Bai	65	141
PSN-PSOE	29	45
Sumar	28	61
PP	25	-
UPN	18	15
Vox	3	3
Bestelakoak	-	1
NA +	-	38




ERGOIENA

	2023	2019
EH Bildu	126	103
PSN-PSOE	25	30
Geroa Bai	20	52
Sumar	13	27
UPN	10	-
PP	7	-
Bestelakoak	2	-
NA +	-	9
Vox	-	2




ETXARRI ARANATZ

	2023	2019
EH Bildu	733	737
PSN-PSOE	175	125
Geroa Bai	125	274
Sumar	99	186
PP	67	-
UPN	50	-
Vox	10	7
Bestelakoak	5	-
NA +	-	117



BAKAIKU

	2023	2019
EH Bildu	125	124
Geroa Bai	20	39
PSN-PSOE	17	12
PP	16	-
UPN	14	-
Sumar	13	25
Bestelakoak	-	-
NA +	-	34
Vox	-	2




ITURMENDI

	2023	2019
EH Bildu	80	73
PSN-PSOE	46	29
PP	28	-
Sumar	24	47
Geroa Bai	22	30
UPN	21	-
Vox	1	1
Bestelakoak	-	-
NA +	-	47



URDIAIN

	2023	2019
EH Bildu	197	183
Geroa Bai	41	81
PSN-PSOE	31	30
Sumar	29	57
PP	12	-
UPN	12	-
Bestelakoak	-	-
NA +	-	26




ALTSASU

	2023	2019
EH Bildu	1.161	1.115
PSN-PSOE	1.063	906
Sumar	542	888
PP	354	-
Geroa Bai	271	591
UPN	161	-
Vox	86	97
Bestelakoak	8	20
NA +	-	477



OLATZAGUTIA

	2023	2019
EH Bildu	258	278
PSN-PSOE	202	184
Sumar	61	137
PP	48	-
Geroa Bai	34	68
UPN	17	-
Vox	17	13
Bestelakoak	-	-
NA +	-	75



ZIORDIA

	2023	2019
EH Bildu	111	112
PSN-PSOE	39	23
Sumar	21	25
PP	20	-
Geroa Bai	13	32
UPN	2	-
Vox	2	-
Bestelakoak	2	-
NA +	-	19

DUELA LAU URTE ESQUINA NAVARRA SUMA GISA AURKEZTU ZEN. KOALIZIOA HAUTSITA, 37 URTETAN LEHEN ALDIZ UPN-K NAFARROAKO LEHEN INDARRA IZATEARI UTZI DIO; 4. DIRA ETA PP-K AURRENEKOZ GAINDITU EGIN DU. SAKANAN PP-K BOTOEN %8,5 ESKURATU DITU ETA UPN-K %5,1. BIEN BATURA 2019AN BAINO 26 BOTO GEHIAGO DA



ASTEKOA

MIKEL MAZKIARAN LOPEZ DE GOIKOETXEA

Izurdeak eta marrazoak

Ziur aski ezagutzen duzue esaera hau: batzuek ospea daramate, eta beste batzuek artilea kardatzen dute. Euskaraz antzeko esaera bat egongo da, baina ez dut ezagutzen. Esaera zahar honen esanahia azaltzeko, izurdeez eta marrazoiez hitz egitea proposatzen dut. 300 marrazo espezie baino gehiago egon arren, bostek bakarrik erasotzen diete gizakiei. Iaz 57 pertsonak marrazoen erasoak jasan zituzten, eta bost hildako egon ziren. Marrazoek nahasita eraso zieten pertsona horiei, taula gainean surflari bat dortoka batekin nahasita, esaterako. Datu horiek sendoak badira ere, marrazoak beldurra sortzen du. Izurdea, berriz, kontrakoa da, ugaztun jatorra da. Dirudenez, oso azkarra da, gizakiekin erlazionatzen da, eta berezko hizkuntza du.

Oro har, izurdeak plazer hutsez ehizatzen ditu arrainak, ez jateko. Bestetik, "Botila lepoa" izurdeak beste izurde kume batzuk jaten ditu emeak berriro haurdun egon daitezene. Estalketan emeak aste luzez jasaten du ar talde baten abusua. Ihes egiten saiatzen bada, hil arte jotzen dute.

ORO HAR, IZURDEAK PLAZER HUTSEZ EHIZATZEN DITU ARRAINAK, EZ JATEKO

Harrituta? Errealitatearen manipulazio horretan zinearen industriak oso paper garrantzitsua jokatu du. Marrazoen kasuan, Spielbergen pelikularen arrakastaren ondoren, Ipar Amerikako ekialdeko

kostaldean marrazoen kopurua %50 murriztu zen. Izurdeen kasuan, *Winter* bezalako filmek psikopata hauen "giza" aldea erakutsi ziguten. Horren guztiaren ondorioa argia da, ez gaitzean itxuraz fidatu, ezta ikusi edo irakurri dugunaz. Mundu konplexu batean bizi gara; beraz, batak bestea aurreiritzirik eta estereotiporik gabe ezagutzen ikasi behar dugu. Nor diren indioak, nor diren bakeroak. Marrazoak, izurdeak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Berriztagarriak bai, baina ez nolana

SAKANAKO AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ PLATAFORMA

Goienar eta Bidezko Energia ekimena bizikletaz eta oinez egiten ari ziren martxak aprobetxatuz, batzar interesgarria egin genuen joan den astean Etxarrin. Haiekin batera, nekazari eta abeltzainen Belardi ekimena egon zen, baita AHTren eta autopista elektrikoaren aurkako taldeak ere.

Espainiar Estatuan egon den inoizko gobernu aurrerakoiena sustatzen ari den haize errotek eta eguzki baratze erraldoiek natur gune garrantzitsuak eta batez ere, laborantzarako lurraldeak okupatuko dituzte, multinazionalen onurarako eta energia burbuila espekulatiboa indartzeko. Proiektu horiek gauzatuko balira, urtez urte energia

elektrikoaren kontsumoa txikitzen doan Estatu honetan, gehiegizko ekoizpena bikoitza izatetik (gaur egun bezala), laukoitza edo boskoitza izatera pasako litzateke soberakin horiek ezerezean galduz edo frantziar Estatura esportatuz (energiaren % 80 galtzen da sistema honekin).

Sakanatik pasa nahi dituzten bi autopista elektriko horiek espekulazio eta multinazionalen onurarako proiektuak besterik ez dira, lur emankorrenak okupatuz eta galbidera garamatzen sistema elikatuz.

Egun hauetan datu ikaragarri bat ezagutu dugu: uztailaren 5ean munduko inoizko batz besteko temperatura altuena izan zen. Uztailaren 6an, atzera berriz, errekor hori gaintitu zen, eta

gauza bera 7an. Nature aldizkarian zientzialari talde batek argitaratu berri du munduko ekosistemaren oreka mantentzeko beharrezkoak diren 8 adierazleetatik 7ren mugak gaintitu ditugula eta saihestezineko desoreka batean sartuko garela berehalako "trantsizio integral" bati ekiten ez badiogu.

Nahiz eta gobernuak informazio hori guziaz izan, sasi aldaketa usteletan dabilta, betikoei betiko mesedeak eginez. Azkena, Garoñan. 40 urteko irabazien ondoren norke iraitsiko du zentral nuklearra? Iberdrolak eta Endesak? Ez. Enresak, enpresa publiko batek. Beste behin ere, irabaziak pribatuak izanik, baina gastuak publiko bilakatu.

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Datorren astean, abuztuaren 4an Udako berezia argitaratuko dugu, eta bertan ez da ez iritzi zutaberik ez gutunik argitaratuko. Ganbzelaietan, aldiz, eskelak eta zorian agurrak jartzeko aukera izanen da. Ondoren, oportetara joanen gara irailaren 4ra arte eta hurrengo GUAIXE astekaria irailaren 8an argitaratuko dugu.

Gurekin harremanetan jartzeko

618 882 675
GUAIXE



guaixe
SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larraza

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Ekintzaileek dozena bat enpresa sortu dituzte

Urteko lehen seihilekoan izan da, eta haien sorreraren atzean 17 pertsona daude; Cederna-Garalurren ekintzaileei lagundu eta aholkularitza emateko zerbitzuaren laguntza izan dutenak

SAKANA

Cederna-Garalur da Sakanan ekintzaileei laguntza eta aholkua emateaz arduratzen dena. Ekintzaileentzako Laguntzeko Zerbitzuaren aurten 31 ekintzaile hartu dituzte aurtengo lehen sei hilabeteetan, 17 emakumezko eta 14 gizonezko. Zerbitzuaren jardunaren ondorioz, dozena bat enpresa martxan jarri dira eta 17 lanpostu sortu dira. Enpresen izaera juridikoa dagokionez, bat sozietate mugatu gisa eratu da eta gainontzeak autonomo edo sozietate irregular gisa.

Horretaz aparte, martxan dauden enpresei ere laguntza eta aholkularitza ematen dizkie. Hala, Garalurren Sakanako Ekintzaileentzako Laguntzeko Zerbitzura jo zuten bi urte baino gutxiagoko antzinasuna duten 11 enpresetako arduradunek (7 emakumezko eta 4 gizonezko), eta bi urte baino gehiagoko antzinasuna duten lauk (3 emakumezko eta gizonezko 1). Bes-



Ikasleei ekintzailetzak hizketan.

Institutan. Horrekin batera, eskualdeko ekintzailetza-esperientziak zabaltzen eta dinamizatzen lagundu du, baita beste erakunde batzuek (esaterako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak) ekintzailetzarekin lotutako hainbat ekitalditan parte hartu ere. Gainera, ekintzaileei eta autonomoei zuzendutako hamar tutorial eman ditu, guztiak ere kolektibo horiendako interesgarriak diren hainbat gai buruz: Zer da ziurtagiri digitala, zertarako balio du eta nola lortu, Antolatu zure paperak Ogasunarekin betetzeko eta Nola egin zure izapideak Ogasunarekin online, ziurtagiri digitalarekin eta fakturen diseinuarekin.

Harremanetarako

Hots egin 639 900 336 (Susana) edo 619 328 264 (Oskia) telefonotara edo sakana.admon@cederna.es edo sakana@cederna.es e-postetara idatz daiteke. Bestela, Arbizuko Utzuganetik pasa.

tetik, ekintzaile eta autonomoei zuzendutako bederatzi tutorial telematik eskaini ditu.

Bestetik, Garalurrek ekintzailetza-esperientziei buruzko tailer bat antolatu eta eman zuen Altsasu Bigarren Hezkuntzako



Mendia, horitik berdera

Lehorteak kalte handia egin zion lehen sektoreari 2022an, bereziki abeltzaintzari. Mendira azienda igo zuten abeltzainek, baita azkar asko jaitsi ez belarrik ez urik ez zegoelako. Abeltzainek behar bezain beste bazka jaso ez zuten, larri iritsi dira 2023an.

Ondorioz, hainbat abeltzain martxoan ereindako belarra moztzen hasi ziren, azindari emateko. Bestela, ereindako belar soroetako zati bat itxi, eta han azienda larratzen izan zuten beste batzuek. Aurten beharrezko belar mozketak egin dira eta azienda mendian da.



UTZUBARTXOREN TXOKOA

Kaixo! Utzubartxo naiz, urtero martxo aldera Arbizuko UtzubarEKOgunera hurbiltzen naizen sai edo putre zuria. Sakanan hilabete batzuk pasatzen ditudanez, tarte horretan Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko mezulari bihurtuko naiz.

Azken astean, Arbizuko UtzubarEKOgunean hartu dut atseden eta deigarriak egin zaizkit garbigunera heltzen diren objektu berri guztiak. Erosi berriak diren gauza asko eramaten dira garbigunera: mahaiak, aulkiak... Inprimagailu berriak ere iritsi izan dira! Askotan galdetu izan diot neure buruari ea nola den posible horrenbeste gauza berri garbigunera iristea etengabe. Horren harira, hainbat gogoeta helarazi nahiko nizkizuke.

Batetik, gure egunerokotasunean oso errotuta dago gauza berriak etengabe erostea. Baina zertarako erosten ditugu gero erabilerarik ez badiegu ematen? Hau da, zergatik erosten ditugu behar ez baditugu?

Bestetik, gauza berriak behin eta berriz erostea ez da inondik inora positiboa, areago, ingurumenean kalteak sorrarazten ditu; esate baterako, ura kutsatzea edota berotegi efektuko gasak aireratzea. Horiek horrela, nola jardun modu egokian? Adibidez, denboran iraun dezaketen kalitatezko produktuak erosiz, edo benetan behar duguna erosiz, bihozkaidek bultzatutako kontsumoa murriztuz.

Aholku horiek ez ezik, garrantzitsuena da hondakin kopurua murriztea. Horra hor hondakinak kudeatzeko gako garrantzitsuenetako bat. Baina zer da murriztea? Produktu bat eskuratzekoan produktu horrek beharrezkoak ez dituen materialak ekiditea, hau da, beharrezkoak ez diren hondakinak ez sortzea.

Gaur ezin izan dut murriztearen ideian sakondu, beraz, badago zer idatzi hurrengo asteetarako.

Mank
s a k a n a



Utzubartxoren Txokoa Nafarroako Hondakin Funtzak finantziatu du. Hondakin Funtsa bereizi ez diren hondakinak zabortegian isurtzeagatik ordaintzen den zerga baten bitartez jasotako diruarekin hornitzen da.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Salamanca, Errioxa, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako basozainak Altsasun egon ziren larunbatean. Guztiek ere malinois belgikar artzain txakur bana zuten aldamenean. Txakurrak hezteko eta haiek detekzio txakur bihurtzeko ikastaroan parte hartzen ari dira. Beloaran zentroko Josu Mendez Sanchez trebatzaile altsasuarra irakaslea da teoria eta praktika irakasten diena. Natur ondarearen kontserbazioan detekzio txakurren erabilera sustatzen duen Odor Naturae elkartearekin elkarlanean ari da Mendez egiteko horretan. Elkarrekin eman ditu txakurrak. Mendezek azaldu duenez, Europan, Amerikako Estatu Batuetan eta Australian gero eta gehiago erabiltzen dituzte ingurumeneko detekzio txakurrak.

Basozainak txakurrekin?

Kasu batzuetan, horrela izan daiteke. Momentuz, txakur gutxi daude. Baina lanerako izugarriko tresna izan daiteke.

Zertan lagun dezakete txakurrek?

Bakoitzak erabakitzen du zertarako erabiliko duen txakurra. Nik otsoen kakak aurkitzeko trebatuko dut. Horrela, otsoen jarraipena egiteko, eta kalteak sortu aurretik neurriak hartu ahal izateko. Bestetik, desberdintzeko zein diren txakurren kakak eta otsoenak, ondoren kalteak ordaintzeko, aldundiak ordaintzen baititu kalte horiek. Bestetik, txakurra hildako animaliak opatzeko trebatuko dut: tirokatuta hildako animaliak, pozoitutakoak, elektrokutatutakoak eta halakoak.

Nola trebatzen dira txakurrak?

Mendezi eta Odor Naturaeri esker trebatzen hasi gara. Txakurrak usain bat bilatzen du, guk erakusten dioguna. Nire kasuan, otso kaka edo hildako animaliak. Hori da ondoren bilatuko duena. Momentuz, oinarriko prestakuntza egiten ari gara: txakurrak niri kasu egitea, gelditzeko esan eta txakurra geldirik gelditzea... Kontuan hartu behar da txakurrarekin lan egiten dugula, beraz, esanekoa izan beharko du, ez da posible hortik barna bere kabuz ibiltzea. Lehenik, hori. Ondoren, prestakuntza egiteko, txakurrari usaintzeko zerbait ematen diogu eta guk nahi duguna aurkitzen duenean sari bat ematen diogu. Dena positiboan egiten da. Trebakuntza aurreratu dagoenean, usaintzera era-

"Lan egiteko eta aurreratzeko eremuak badaude"

ALBERTO ARABAKO FORU ALDUNDIKO BASOZAINA

Etxeko lanak egin ondoren, detekzio txakurra trebatzeko aurrez aurreko lehen saioa zuen. Gustura ari da, eta ekimenaren garrantzia nabarmendu du



Albertok, eta gainontzeko basozainek, praktikak Altsasuko basoan egin dituzte.

man eta basoan barna estalitakoa opatzean sarituko dugu. Nik kume bat dudanez, oinarriko prestakuntzarekin hasi gara; ez da erraza txintxo portatzea (barrez). Txikitatik hartzea errazagoa dela esaten dute, pixkanaka hasia. Hilabete daramat trebatzen, besterik ez. Baina lankide batzuek urte pare bat daramate. Asmoa da hilabetean behin elkartzea, baina etxeko lan pila eramanen dugu, egun osorako lana baita. Harekin mendira ateratzen naiz dagoeneko. Oraindik ez du bilatzen, baina mendian ibiltzen ohitu behar du, eta behiengana, ardiengana, beste txakurrengana edo ziza bilatzaileengana ez joaten.

Txakurra 24 orduz zurekin dago?

Bai, gurekin bizi da; familiako txakurra da. Baina, horretaz aparte, elkarrekin lan egiten dugu. Ez da erraza. Txakur bereziak dira, hezita egon behar dira kasu guztietan, baita etxean ere. Txakur onak izan behar dira. Beraz, txakurrak zerbait markatzen duenean gerturatu beharko zenuke. Guk normalean egiten dugun lana egiten dugu. Esaterako, beharbada otsoek eragindako

"BAKOITZAK ERABAKITZEN DU ZERTARAKO ERABILIKO DUEN TXAKURRA"

kaltea balego, hara joan eta aztarnak bilatzen ahaleginduko ginen, ea kakak aurkitzen diren. Badakigu otsoak bide nagusietatik pasatzen direla. Handik arrasto bila ibiltzean gerta daiteke kaka bat opatzea ere.

Basozain askok duzue txakurra?

Arabako Natura Ondarea zerbitzuak norabide horretan egin du apustua. Uste du izugarriko tresna izan daitekeela, gauza pila egin daitezkeela, eta horretan gaude. Lan egiteko eta aurreratzeko eremuak badaude. Esaterako, piromanoek suteak pizteko erabili dituzten azeleratzaileak aurkitzeko erabil daitezke txakurrak. Eremu zabalak daude lan egiteko.

Erkidego guztiek egin dute txakur detektatzaileen aldeko apustua?

Ora in hasten ari da. Denborarekin, gure lanerako oso ona izan daitekeela erakusten denean, txakur eta basozain binomio kopurua handituko da. Eta eginen den lana ere handituko da. Momentuz, hasiera da.

Otsoa Araban. Nafarroan?

Nafarroatik pasatzen da, edo pasa daiteke. Baina kalterik ez dagoenean, ez garajabetzen otsoa dagoen. Otsoa pila mugitzen da: 40 km gau batean, hori otso batendako erraza da. Gerta daiteke otso bat Burgostik etortzea, hemendik aste bat ibiltzea eta, ondoren, bueltatzea, edo mugitzea. Horregatik, noizbehinka, otsorik ez dagoen inguruetan ikuskapeen berri izaten da.

Pozioia ere aipatu duzu.

Ora in badago. Basozainok zenbat eta gehiago jakin, orduan eta kasu gehiago aurkitzen ditugu. Animaliairen heriotza naturala ez denean delitua izan daiteke. Beraz, halakoetan protokolo bat jarraitu behar da, fiskaltzara informazioa eraman, zaintza katea jarraitzea... Gauzak ongi, oso fin, egin behar dira jarraipena emateko. Animaliak ikustean, batzuetan, jakin dezakegu zertaz hil diren, baina heriotzaren benetako arrazoia al-baitariak ematen du nekropsia egin ondoren. Opatzen dutenaren arabera, beste laborategi batera eramaten dira aztarnak jakiteko zertaz hil den, edo pozoituko zer pozoia mota erabili duten jakiteko. Informazio hori fiskaltzari pasatzen zaio. Elektrizitate enpresen kasuan, dorre edo linea horiek zuzendu behar dituztela esanez gutuna bidaltzen diegu. Egiten ez balute, fiskaltzara.



Langileak zubian lanean. UTZITAKOA

Irañetako zubiko estribuak konpontzen ari dira

Kisugileak Arakil ibai gaineko zubian lanean daude garilaren 17az geroztik. 2021eko abenduaren 10eko uholdeek zubi osoa urpean utzi zuen; uraren indarrak lau estribuak kaltetu zituen, harriak mugitu eta tokiz kanpo utzi zituen. Kontuan izanik estribuen egitekoa zubiko hiru arkuen bultzadei eustea dela, Irañetako Udalak konponketa premiazkoa jo zuen, baita horretarako dirulaguntza lortu ere. Lanak Lakita enpresa egiten ari da 65.000 euroren truke, eta agorrila akaberarako despedituta egonen dira. Enpresa bera Tufetako bidea konpontzen ari da, eta lan horrengatik 34.000 euro jasoko ditu.

Bestetik, Zabalgo bidea egokitze eta konpontzeko lanak ere egiten ari da Beraza enpresa, eta bukatzean 26.000 euro kobratuko ditu. Bideen lau kilometro pasako luzeran ezpondak garbitu, bideko zorua konpondu, drainatzeak jarri, inguruko sasiak garbitu eta bestelako lanak egiten ari dira.



Autoendako aparkaleku berriak Puttobeoki kalean du sarrera.

Autoendako aparkaleku berria, festetarako

Errotondaren hego ekialdean dago; ongi aparkatuz gero, 40 autorendako tokia du. Lanak aste honetan despeditu dituzte. Bestalde, Amaiturrietako iturburutik ur biltegirainoko ur sarean ihesak kentzeko lanak aurreratuta daude

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko errotondaren ondoan aparkaleku bat dago. Garai batean pribatua zen, baina udalak berriki lursaila erosi du, eta erabaki du erabilera bera ematen segitzea. Puttobeoki kaltetik du sarbidea aparkaleku berriak. Udalak aparkalekuaren hegoaldeko muga guztia hesitu du, eta sarreran galiboa jarri du. Hark bi metro eskaseko altuera du. Maria Saez de Albeniz Bregaña alkateak azaldu duenez, "horrekin, bermatu nahi dugu aparkaleku horretan bakar-bakarrik autoak sartzen direla". Aparkalekua iparraldean ere mugatuta dago, partikular baten partzela baitago han. Zorua le-

garrezkoa du, eta udalak ez du asfaltatuko. Beraz, ez da aparkatzeko marrarik izanen. "Hala ere, espazioa ongi baliatuz gero 40 autorendako tokia dago", jakinarazi du alkateak.

Aparkalekua hartzen duen partzelak 1.028 metro karratu baditu ere, autoak uzteko eremuak 770 metro karratu ditu. Etxarri Aranazko Udalak 56.379 euroko inbertsioa egin du: 38.516,84 euro lursaila erosteko eta 17.862,16 euro aparkalekua egokitze. Dirua udalarena zen beste lursail baten salmentatik atera da.

Udalak aurretik beste bi aparkaleku egin ditu. Larreñondo kalean 80 auto har dezakeen bat

egin zuen 2017ko akaberan. Plazako jolas parkearen ondoan zortzi autorendako aparkalekua egin zuen 2021eko hasieran. Azkenik, 17 autokarabana hartzeko aukera duen aparkalekua Larreñondo kalean dago. Azpiegitura 2020ko abendu akaberan mustu zen. Horietaz aparte, jakina, igerileku eta kanposantu ondoko aparkalekuak daude.

Ur sarearen konponketa

Ura elementu preziatua da, eta ezin da alferrik galtzen utzi. Hala pentsatzen du Etxarri Aranazko Udalak. Horrengatik, Amaiturrietako iturburuetatik ur biltegirara arteko ur hoditeria berritzen ari da. Gaur egun era-

biltzen denak 50 bat urte ditu, mikrozeimentuzkoa da eta ur ihesak ditu. Udalak 2017an jarri zituen kontagailuen arabera, ur biltegirara ez da iristen iturburutik ateratzen den uraren %59,1. Ur galerarekin bukatzeko hodi berria jartzen ari dira, dentsitate handiko polietileno egina, eta egungoa (150 milimetro) baino diametro handiagoa izanen du, zati batzuetan 160 mm eta besteetan 180. Horrela, ur emari handiagoa eramateko gaitasuna izanen du sareak.

Gainera, kisugileak beste lan batzuk egiten ari dira. Alde batetik, Amaiturrietako bi iturburuak iturri txiki pila batez osatuta daude eta haien emaria erreten txikien bidez jaso eta aurreneko biltegirara joaten dira. Batean eta bestean sarbidea eta iturburuko biltegi nagusiko loturak hobetu dira. Balbulak berri eta hustubideak garbitu dira ere. Han jasotako ura ur biltegi zaharrera eramaten da; biltegi zaharrak haustura karga kutxatilaren funtzioa du, hau da, ura eramateko hodian gehiegizko presioa egotea eragozten du. Egiteko beste lana da ur biltegi zaharreko lotura berritzea, bere gaitasuna 100 m³-raino handitzeko, 80koa baitzen. Azkenik, ur biltegi berriaren sarrerako eta konportako balbulak berri dira. Azken horrek 1.200 m³-ko gaitasuna du. Han, ura tratatzen da eta herrira zabaldu.

Lanak garagarriaren erdialdean hasi ziren, eta nahikoa aurreratuta daude. Lakita enpresa da haiek egiten ari dena, eta trukean 230.000 euro inguru jasoko ditu. Lan hori finantzatzeko udalak Nafarroako Gobernuak kudeatzen duen Next Generation funtseko 200.000 euroko dirulaguntza du.

JARRAI GAITZAZU INSTAGRAMEN !!!

eta horrela gure produktuak ezagutuko dituzu, nola egiten dugun lan, gure dendak eta salmenta puntuak... Baina hainbat lehiaketetan ere parte hartuko duzu, promozioekin onurak izan, ideia handiak... eta askoz gehiago ere.



@panesamayaogiak

Amaya

OGITEGIA
1984-2023

Aralarko aingeruaren lagun txikiak

Kofradiak antolatutako haurren aurkezpenean 55 umek parte hartu zuten. Santutegiak garai batean bataio eta ezkontza ugari hartzen zituen; orain parroketan egin behar dira. Aurkezpenarekin santutegiarekiko lotura sustatzen dute

UHARTE ARAKIL

Hemezortzigarren aldiz Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak Aralarko Aingeruari Haurren Aurkezpena antolatu zuen igandean. Meza nagusiaren akaberan egin zen umeen aurkezpena. Txikiak guraso eta aitona-amonetz lagunduta egon ziren. Aurkezpenaren bidez umeak Aralarko aingeruaren lagun direla adierazten da, eta haren bizi guztirako babesa eskatu zuten. Hala irakur liteke aurkezpenaren ondoren ume bakoitzak jaso zuten pergaminoan. Aurretik aingeruaren irudia gurtu zuten. Horrela, txikien eta Aralarko santutegiaren arteko lotura estutu egin nahi du kofradiak.

Santutegira joan zirenek ikusi zuten sarbidean oraindik ere ez daudela despedituta harrera, komunak eta denda egiteko lanak. Mikel Garziandia Goñi kapilauak jakinarazi duenez, udan bukatuko dituzte. Hori aurreikusitako lanen bigarren fasea da. Izan



Haurrak eta senideak Mikel Garziandia Goñiri kasu egiten. NEREA MAZKIJARAN ZELAIA

ere, joan zen urtean despeditu zuten aurrenekoa: Lakuntzetxe edo Deierri etxearen konponketa. Han museoa eta kofradiaren egoitza daude, besteak beste. Herritarrek diru ekarpenekin aurre egin zioten 400.000 euroko

aurrekontua zuen lanari. Hirugarren fasean ostaturia eta gazte aterpea egokitu nahi dituzte. Horretarako, 2,5 milioi euroko aurrekontua aurreikusitako dute. Bi urtetan eta bi fasetan egingen lirateke lanak.



Autoak eta txirrindulariak bidean, eta parean senda egiteko lanak.

Urriztirako sendan beste zati bat egiten ari da udala

Oinezkoendako bidexkak baserriak eta igerilekuak lotuko ditu Bernoako galtzadako bideari segituz

URDIAN

Urdiaingo Udalak Teileriko zabalatik Urriztiraino, baserrietatik igerilekuraino, metro bat zabal eta 2,5 km inguruko luzera duen senda egiteko asmoa du. Lan horrekin, Urdiaingo Udalak oinezko eta txirrindulariei segurtasuna eman nahi die, asfaltatutako pistan ibilgailuak gehiegizko abiadura ibiltzen baitira.

Lana bere baliabideekin egiten hasi da, pitteka ari da horretan. Lehen zatia Ibasko errekaldean dagoen zubi ondotik herrirantz egindakoa izan zen, urte hasieran egin. Berriki udalak Teileriko

Zabalean dauden bi bidegurutzeen artean lurra jaso du senda egiteko. 210 bat metro gehiago izanen ditu sendak zati hori egin dagoenean. Udalak argitu duenez, San Pedro plazaren erditik ez da sendarik pasako; hura asfaltatutako biderantz eramaten du.

Bestetik, udalak baso aprobetxamendua aurtan bargan eman du, Altsasu alderantz. Han gaztainondoak daude, pagoz inguraturatu. Epaitzak emanez, gaztainondoendako espazioa sortu nahi izan du. Loteetara iritsi ahal izateko, bideetan mantentze lanak egin ditu udalak.



MUSIKAZ
BLAI

Mattin
AIESTARAN
de la SOTILLA

Arkeologoa / IRURITA

Ezetz
asmatu
zeintzuk
diren bere
kantu
kuttunak
Piztu
irratia!

Uztailak 28, ostirala,
10:30etik aurrera

Beleixe irrastian





Amandrea plaza, itxuraldatuta

Garajerako oinezkoen sarbideak, eta gutxi gehiago falta da Amandrea plazako lanak despeditzeko. Plazaren azpian autoendako garajea dago eta han ur sartzeak eragozteko garajeen estalkia iragazgaitz bihurtzeko lanak egin dira. Bide batez, plazako urbanizazioa berriki egin da. Altsasuko Udalak eta plazako garajeetako jabekideen komunitateak egin dute lana.



Atzoko batzarrean EH Bilduk Aitor Larraza Carrera aurkeztu zuen David Oroz Alonso ordezkatzeko. ARTXIBOA

Lehendakari aldaketa Mankomunitatean

Orain arte ardura izan duen David Oroz Alonso ez da aurkeztu berriz hautatua izateko. Ibarreko erakundea eratzeko batzarra atzo arratsaldean egin zen. EH Bilduk lehendakari izateko Aitor Larraza Carrera aurkeztu zuen

SAKANA

Udal hauteskundeak eginda, udalez gairako erakundeak eratzeko batzarrak egiten ari dira batean eta bestean. Sakana Mankomunitatea da horietako bat. Legegintzaldi berriko aurreko batzarra atzo arratsaldean egitekoa zen. Lehen bilkura horretan erabakitzen dute udaletako ordezkariak zein izanen den erakundeko presidentea. EH Bilduk jakinarazi zuenez, orain arte Mank-eko presidente izan den David Oroz Alonsok ez du errepikatuko. Koalizioak azken bi legegintzaldietan Irurtzungo alkate izandako Aitor Larraza Carrera aurkeztu zuen hautagai gisa. Erredakzioa ixterakoan ez genuen emaitzaren berri.

Mank-en ibarreko udalerrri guztiak daude ordezkaturik. Baina populazioaren arabera da batzarrean duten ordezkariak. Mila biztanleko ordezkari bat dagokio herri bakoitzari. Mila herritar ez dutenek ordezkari

bat dute, 1.000 eta 2.000 arteko bi ordezkari dagozkie, 2.000 eta 3.000 artekoek 3 ordezkari dituzte. Altsasuren kasuan, 7.000 eta 8.000 biztanle artean duenez, 8 ordezkari dagozkie. Populazioan aldaketarik izan ez denez, aurreko legegintzaldiko batzarkide kopuru bera mantentzen da: 29. Batzarkideak hiru koalizio edo hautagaitzetakoak dira: EH Bildukoak hemeretzi batzarkide dira (aurreko legegintzaldian baino bat gutxiago), Geroa Bai-koak sei (aurreko kopuru bera) eta hautagaitza independentetakoak lau dira (bat gehiago).

Bitxikeriak

Ergoienako eta Iturmendiko alkateak izan ezik, ibarreko gai-

**MANK-EN 29
BATZARKIDE DAUDE:
19 EH BILDUKOAK, 6
GEROA BAIKOAK ETA 4
INDEPENDENTEAK**

nontzeko hamahiru udalerrietako alkateak Mank-eko batzarkideak dira. Gainera, 29 udal ordezkarietatik hamasei aurreko legegintzaldian ere Mank-en lanean aritu ziren: Oihana Olaberria Jaka, Aitor Larraza Carrera, Ana Balda San Juan, Txomin Uharte Baleztena, Gorka Ovejero Ganboa, Francisco Javier Razkin Flores, Maria Saez de Albeniz Bregaña, Egoitz Urritza Lazkoz, David Oroz Alonso, Javier Ollo Martinez, Manuel Berjera Ijurko, Julen Diaz Oiarbide, M^a Carmen Viana Murga, Jokin Zelaia Oiarbide, Joseba Vizuete Askargorta eta Olatz Irizar Martinez. Gainontzeko 13 batzarkideak eginkizun horretan berriak dira.

Azkenik, Iturmendiko ordezkaria batzarrean behin-behinean dago; izan ere, herrian ez zen udal hauteskunderik egin hautagaitzarik aurkeztu ez zelako. Berritu ez diren udalak osatzeko bigarren deialdia udazkenean egingen da.

Batzarkideak

Arakil	Oihana Olaberria Jaka	EH Bildu	
Irurtzun	Unai Razkin Iriarte	EH Bildu	
	Aitor Larraza Carrera	EH Bildu	
	Ana Balda San Juan	EH Bildu	
Irañeta	Iñaki Arangoa Zia	Independentea	
Uharte Arakil	Txomin Uharte Baleztena	EH Bildu	
Arruazu	Gorka Ovejero Ganboa	Independentea	
Lakuntza	Oihane Uribeetxebarria Garmendia	EH Bildu	
	Miriam Mendikute Garate	EH Bildu	
Arbizu	Francisco Javier Razkin Flores	EH Bildu	
	Amets Flores Gartzandia	EH Bildu	
Ergoiena	Miren Maite Mendiñueta Resano	Independentea	
Etxarri Aranatz	Maria Saez de Albeniz Bregaña	EH Bildu	
	Arkaitz Errazkin Beltza	EH Bildu	
	Rafael Lakuntza Mendiñueta	EH Bildu	
Bakaiku	Egoitz Urritza Lazkoz	EH Bildu	
Iturmendi	Borja Martinez de Ordoñana	Independentea	
Urdiain	David Oroz Alonso	EH Bildu	
Altsasu	Javier Ollo Martinez	Geroa Bai	
	Jokin Zelaia Oiarbide	Geroa Bai	
	Manuel Berjera Ijurko	Geroa Bai	
	Mari Carmen Viana Murga	Geroa Bai	
	Julen Diaz Oiarbide	Geroa Bai	
	Santiago Luceño Arias	Geroa Bai	
	Ainize Ibartutxi Iparragirre	EH Bildu	
	Juan Jose Goikoetxea San Roman	EH Bildu	
	Olatzagutia	Joseba Vizuete Askargorta	EH Bildu
		Asier Vicente de Miguel	EH Bildu
Ziordia	Olatz Irizar Martinez	EH Bildu	

Batzarkideen generoa

Legegintzaldia	Gizonezkoa	Emakumezkoa
2011-2015	22 (%75,86)	7 (%24,14)
2015-2019	20 (%68,97)	9 (%31,03)
2019-2023	20 (%68,97)	9 (%31,03)
2023-2027	18 (%62,07)	11 (%37,93)

DUELA 25 URTE...



Arakilgo Eguna

Egiarretako Itxasperri ermitak eta bere inguruak Arakilgo Eguna hartu zuten garilaren 25ean. Egitaraua Inozentzio Aierbek emandako elizkizunak zabaldu zuen. Segituan Sakanako aizkolarien erakustaldia izan zen. Gainera, kirolariak arakildarrak txingekin, sokatiran eta beste herri kirol batzuk probatzera animatu zituzten. Gainera, trikitilariak giroa alaitu zuten. Ospakizuna borobiltzeko, bazkaria eta ondorengo musaldia izan ziren.

Goi mailako pilotarien plaza

Etxarri Aranazko festetan, uztailaren 30ean, Ados Pilotak antolatutako Plazaz plaza txapelketaren partida jokatuko da. Emakumezko pilotari profesionalen kluba da Ados. Pilota eskola ere bada

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ "Abenturara salto egin genuen. Egin behar zen". Maite Ruiz de Larramendi eta Iera Agirre pilotariek elkarrekin sortu zuten emakumezko pilotari profesionalen lehen kluba: Ados Pilota. Ruiz de Larramendik bizitza osoa darama pilotan jokatzen, eta hutsune "handia" ikusten zuen: "Zaletasun osoa daukat, eta titulu eta txapela asko irabazi ditut; baina emakumezkoak izateagatik ezin dugu aurrera egin, ezin gara mailaz igo. Tope moduko zerbait dago, eta bizitza osoa daramagu zain, ea norbait etortzen den barita magikoa eskuetan". Behar horretatik sortu zuten Ados pilota 2021ean.

Ados Pilotak bi adar ditu: alde batetik, pilota eskola 7 urtetik aurrerako neskekin, "edozein klubetan bezala", eta, bestetik, klub profesionala. Eskolan 30 bat haur daude, eta klubeko plantillan hamahiru pilotari daude. Enpresa batek egiten duen "gauza bera" egiten dutela azaldu du Ruiz de Larramendik. Urte osoan txapelketak antolatzen dituzte, tartean udan egiten

duten Plazaz plaza, aurten hirugarren edizioa jokatzen dena. Igandean, 17:00etan, Etxarri Aranatzeko partida izanen da: Etxelokonea eta O. R. Larramendi, Iturriaga eta Orbegozoren kontra.

Profesionalak

"Lehen bakarrik erramintarekin egin zenezakeen aurrera, emakumezkoa bazinen. 2016an esku pilota pixka bat mugitzen hasi zen. Palan aritu garenak esku pilotan hasi ginen, baina 12 edo 13 urterekin uzteko gonbidapena egiten digute". Duela zenbait urte izan zen "boomean" sartzea erabaki zuten pilotari askok. "Esku pilota gustatzen zaigulako. Palarekin asko disfrutatu dut, baina ez nuelako beste aukerarik. Esku pilota egon balitz, horretan jokatuko nukeen". Antolatzen zituzten txapelkete-

"PALAREKIN ASKO DISFRUTATU DUT, BAINA ESKU PILOTA EGON BALITZ, JOKATUKO NUKEEN"

tan izena ematen hasi ziren, eta elkarrekin jokatuta hobetzen ari zirela ikusi zuten. "Baina ikusi genuen jendea gurekin irabazten ari zela". Antolatutako txapelketek ez zuten oinarririk: "Teilatutik antolatzen hasi ziren. Emakume Master Cupa telebistarekin eta pantailekin antolatzen dute, baina ez dago entrenamendurik, ez zer egin behar den hobetzeko...". Ruiz de Larramendi txapelduna izan zen, hiru partida irabazita: "Urte osoa hiru partida horiei itxaroten egon behar da, eta lehenengo ongi atera behar da; bestela, etxera".

Esfortzu "handiarekin" 2021ean Ados Pilota kluba sortu zuten. "Enpresa batek egiten duena egiten dugu, baina orain arte ez zegoen horrelakorik. Badirudi enpresa baten babesa behar dela profesionalizatzeko". Pilotariak elkartu ziren eta ikusi zuten txapelketa luze bat "merezi eta nahi" zutela: "Kirol guzietan emakumezkoen atalak profesionalizatzeko saltoa egiten ari ziren. Zergatik pilotan ez? Pilotari batzuek "itxaroteko" esan zieten, "zer dela-eta itxa-



Ados Pilota Klubeko pilotariak asteazkeneko entrenamenduan. ADOS PILOTA

ron behar dugu? Futbolearen itxaroten dute? Futbolearen aurrera egin zuten, eta entrentzeko elastikoa beraiek ordaindu behar izan zuten. Begira non dauden orain". Urteekin lortu-

"ENPRESA BATEK EGITEN DUENA EGITEN DUGU, BAINA ORAIN ARTE EZ ZEGOEN HORRELAKORIK"

tako zerbait izan dela esan du pilotariak.

Pilotariek pilotari "dena" eman diote, eta klubean sartzeko konpromisoa baino ez dute eskatzen: "Entrenamendu fisikoak eta teknikoak egitea". Txapelketaren batean laguntza behar badute "gonbidapenak" egiten dituzte: "Hamabost bagaude, eta beste pilotari bat behar badugu klub batera deitu eta baldintza berberekin etortzen dira, berdin irabaziko du". Urrats garrantzi-

Zure ogia eta gosariak bertan

Ongi pasa festak!

PORTUKO

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

kaxeta

Ongi pasa festetan!

fotokopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

ZURE PUBLIZITATEA HEMEN

Informazio gehiago:
948 564 275 | 661 523 245
publi@guaixe.eus
guaixe.eus/publizitatea/



tsuena zera da: klubean dauden pilotariek lan kontratua daukate. Halere, pilotariak salatu du ez zaiola garrantzirik ematen: "Kontratua daukate; noiz existitu da hori pilotan? Egunen batean konturatuko dira zer garrantzitsua den egin duguna". Bitartean, gainera, instituzioek "beste alde batera" begiratzeko dutela kritikatu du Ruiz de Larramendik. "Duela ehun urte existitu ziren raketista profesionalak, pilotaz bizi zirenak,

eta guri esaten digute ezin gaitzkeela honetaz bizi". Esan du, gizonezkoen kasuan, pilotari gutxi iristen direla pilotatik bizitzera. "Ilusio handiarekin ari gara, bidea egiten ari gare-

ETXARRIKOA "PARTIDA ONA" IZANGO DA: ETXEKOLONEA-O. R. DE LARRAMENDI ETA ITURRIAGA-ORBEGOZO

lako; asko kostatzen zaigu, eta inork ez du baloratzen. Guk hiru edo lau bider erakutsi behar dugu gure lana".

Txapelketak

Hiru urte hauek "intentsitate handiarekin" bizi izan dituzte. "Urte osoan gure txapelketa propioa egotea lortu dugu". Plazaz plaza txapelketa antolatzen hasi ziren, "jendearengana iristeko modu bat da, plazetan pilota egotea, herrien erdigunean". Afizioarengana iristea da helburua, "emakumezkoak bertan gaudela erakustea". Klubaren apustu handia Binakako Txapelketa izan zen. Martxoan jokatu zuten finala, eta "primerako" txapelketa izan zela esan du Ruiz de Larramendik. Lehenengo maila eta promozioa dute, "promozioko neskatoek ikusten dute aurrera egin dezaketela, ilusioa egiten die, eta erreferenteak dituzte". Bestetik, bertso-pilota txapelketa egin zuten, bertsoak eta pilota uztartuz. "Zoragarria izan zen". Sanferminetako txapelketa ere antolatu zuten, festen aurretik, ekimen solidarioa ere dena: "Ez da bakarrik pilotan jokatzeko, sozialki ere inplikatzeko gara". Joaten diren herrietan "mugimendua" sortzen dute.

Kluba "familia" da, eta beraiek dena antolatzen eta prestatzen dute: "partidak prestatu, pegatinak jarri, kronikak idatzi...". Partiden aurretik, haurren partidak izaten dira. "Jokatzeo aukera ematen diegu".

Plazaz plaza

Plazaz plaza txapelketan hamasei pilotarik parte hartzen dute, bi taldetan banatuta daude, eta talde bakoitzean aurrelari nahiz atzelari guztiak elkarrekin nahasita jokatzeko dute. Pilotari ba-

koitzak lau partida jokatu dute, eta puntuazioa indibiduala izango da. Talde bakoitzetik puntu gehien dituzten lehen bi aurrelari eta atzelariak sailkatuko dira finalerdietara, irailaren 17an eta 23an Getarian jokatu direnak. Final handia Azkoitiko Goiko losa frontoian izango da, irailaren 30ean.

Etxarri Aranazko festetan, uztailaren 30ean, 17:00etan, jokatu den jaialdia "partida ona" izango dela uste du Ruiz de Larramendik. Naroa Elizalde Etxekolonea eta Olatz Ruiz de Larramendi bikotea Iera Agirre Iturriaga eta Oihana Orbegozo kontra ariko da. "Gaztetxoek kasuan, bizitza osoa daramate esku pilotan jokatzeko, eta progresioa ikusten zaie. Jakin nahi nuke nola jokatu genukeen guk utzi behar izan ez bagenu".

Ruiz de Larramendik azaldu du partida "desberdina" izango dela: "Ezin dira konparatu emakumezkoen eta gizonezkoen partidak. Konparatzen duena gaizki ari da. Joko desberdinak dira". Ados Pilotaren presidenteari esan dio "politak" egin behar dira, jendearengana iristen direnak: "Jendea partidatara etortzea eta esatean zeinen ongi jokatzeko dugun, komentatzea nola hobetu dugun eta zer gauza polit egiten ditugun". Bere "telebistarik" onena hori dela esan du, "jendea frontoira joatea". Akatsak egiten badituzte ere argi utzi nahi dute, "ikasteko bidea delako; ez zait inporta esatea ez dugula batera ongi jokatu. Normala da ere, denak ez dira partidak ongi jokatu". Emakumezkoen bidea egiten uzteko eskatzen dute.





Pintxoak, bokatak
eta eguneko menua
goxo-goxoak

948 461 703
Kale Nagusia, 8 (Etxarri Aranatz)

Ondo pasa festetan!



FESTAK

ETXARREN FESTAK

UZTAILAK 28 Ostirala

19:00 Txupinazoa.
19:15 2022an eta 2023an jaiotakoei festetako zapia ematea.
19:30 Herri jokoak.
DJ Gaztemusic.
22:00 Herri afaria.
00:00-05:00 DJ Gaztemusic.

UZTAILAK 29 Larunbata

11:30 Hamaiketakoa.
11:00-14:00 Puzgarriak.
18:00 Txokolatada.
19:00 Amico konpainiaren *Kinki Games* antzerkia.
20:00 Hiruko saskiratzeen txapelketa.
20:00-21:30 My Way orkestraren emanaldia.
21:30 Bingoa.
22:00 Zezensuzkoa.
22:30 Herri afaria.
00:00-05:00 My Way orkestraren emanaldia.

UZTAILAK 30 Igandea

11:00 Meza santua.
11:45 Hamaiketakoa trikitixak girotuta.
Etxarrendarren argazkia, plazan.
12:30 Herritarren arteko herri kirolak.
18:00 Pilota jaialdia.
20:00 Rondalla Guilauband mexikarrak.
21:30 Bingo eta zozketak.
22:00 Zezenketak.

UZTAILAK 31 Astelehena

11:30 Hamaiketakoa.
12:30 Ping-pong txapelketa.
14:30 Herri bazkaria.
16:30 Mus eta briska txapelketa.
Haurrendako jolasak.
00:00 Gaixoa ni.



UTZITAKOIA

IRURTZUN Irurtzongo erraldoi eta buruhandien konpartsak 40 urte bete ditu. Ospakizun gisa igandean topaketa egin zuen, Irurtzunen, aurtan 20 urte beteko dituen Lakuntzako konpartsarekin eta Lekunberri eta Burlatakoekin.



ARAKIL 2022an jaiotako arakildarrek zapia jaso zuten asteartean Itxasperrin ospatutako Arakilgo Egunean.



XABIER UNANUA

IRURTZUN Pikuxarrek antolatzen duen Irurtzongo eskorga kronoigoera.

ETXARRI ARANATZ FESTAK

UZTAILAK 28 Ostirala

BEZPERA
17:00 Festetako III. Mus txapelketa.
18:30 Pilota partidua:
X. Etxebarri – J. Olarra /
A. Zubiria – A. Berasategi
19:00 Pala partidak.
Gure Pilota Elkarteak antolatuta.

UZTAILAK 29 Larunbata

ETXIA! EGUNA
09:30 Ehiza ibilbidea.
Muxar ehiztari taldeak antolatuta.
10:00 Festetako futbito txapelketako aurrefinala eta finala, eskoletan.
Etxarriko Gazte Asanbladak antolatuta.
12:00 2022an jaiotako haurrei zapi banaketa.
13:00 Festa hasierako suziria: kalejira Etxarri Aranazko erraldoi eta buruhandien konpartsa, Etxarri Aranazko gaitero eta Eskartxa txarangarekin.
Photocall-a.
Festa Batzordeak antolatuta.
14:00 Eskartxa txarangarekin kontzertua, plazan.
15:00 Bazkaria, plazan.
17:30 Kalejira, Eskartxa txarangarekin.
18:30 Etorkezuna Euskal Dantza taldearen ikuskizuna, plazan.
20:00 *Etjera!* manifestazioa.
Sarek antolatuta.
20:00 Salbea Andra Mari baselizan, Etxarri Aranazko Abesbatzak eta Parrokiako Abesbatzak kantaturik.
Elizak antolatuta.
20:30 Auzatea.
Hartzabal, Etxe-Azpi, Larrañeta eta Karrikestu elkarteek prestatuturik.

**BIKAIN
GARAJEA**



Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila

948 460 037 Arbizu



**GORA ETXARRIKO FESTAK!
BOKATA GOXOAK ETA GIRO EDERRA!**

**LEKU ONA TABERNA
948 461 228**



20:30-22:00 Trikiteens taldearekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-04:30 Trikiteens taldearekin gaupasa.

UZTAILAK 30 igandea

ARAÑAZ ELKARTIEN EGUNA

08:00 Gurdi dementie.
EGAK antolatuta.
10:30 Dianak Etxarri Aranazko gaiteroekin.
11:30 Auzatea.
Gurea-Etxea elkarteak prestatuak.
12:30 Herri kirolak: Sakanako Aizkora eskolako ikasleak, helduak binaka eta harri jasotzaileak, plazan.
Etxarriko Erraldoiak eta Buruhandiak.
13:30 Imperial Elegancia mexicana mariatxien emanaldia.
17:00 Pilota partidak. Ados klubeko III. Plazaz plaza txapelketako pilota jaialdia:
Arrieta – O. R. de Larramendi / Iturriaga – Mendiburu
Baiko pilotako binakako pilota jaialdia:
Agirre – Ugartemendia / Zubizarreta III – Arbizu
Urrutikoetxea – Aranguren / Bakaikoa – Imaz
18:30-22:00 Xaibor 20 urte musika ikuskizuna.
20:30 Kostillada.
EGAK antolatuta, gaztetxean.
22:00 Zezensuzkoa.
22:15 Pantxo Balbuena musikaria.
Festa Batzordeak antolatuta.
00:00 Etxarriko musikarien kontzertua.
00:30 Hofe eta DJ Reymi, gaztetxean.
EGAK antolatuta.

UZTAILAK 31 Astelehena

KUADRILLAAN EGUNA

11:30 Auzatea.
Etxe-Azpi elkarteak prestatuak.
12:00 Haurrendako apar festa.
Oharra: bainujantzia eta txankletak eraman.
13:00 Arbizu, Etxarri, Bakaiku eta Altsasu Kantuz taldeen musika saioa.
Etxarriko Buruhandiak eta japoniar bonbak.
15:00 Herri bazkaria, plazan.
Festa Batzordeak antolatuta.
17:30 %100 Hodei haurrendako magia ikuskizuna.
18:00 Gaztetxera jaitsiera.
EGAK antolatuta.
18:00 Kalejira Txorongo eta Eskartxa txarangekin, gaztetxetik.
EGAK antolatuta.
20:00-22:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00-03:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia.
03:00-05:00 DJ Armo.
Festa Batzordeak antolatuta.

ABUZTUAK 1 asteartea

HURREN EGUNA

08:00 Gurdi dementie.
EGAK antolatuta.
11:30 Auzatea Udaberri elkarteak prestatuak.
11:30-13:30 Jolas parkea haurrendako.
13:00 Etxarriko Buruhandiak.
Swingtronics taldearen musika saioa.
17:00 Futbol plaza txapelketa, kale nagusian.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

Arroz goxoekin ideiak argitzeko

Munduko Arrozen ekimenaren bigarren edizioa izanen da festan

ETXARRI ARANATZ

Maria Saez de Albeniz Bregaña alkateak azaldu duenez, "oso-oso zapore ona utzi zuen Etxarrin Munduko Arrozak ekimenak joan zen urtean. Oso gustura egon ginen. Parte hartzea handia izan zen, bai jatekoak prestatzen, baita etxarriarren aldetik ere. Horregatik, aurtun ere errepikatuko dugu". Alkateak aitortu duenez, "festetako osteguna ez zen oso bete gelditzen, eta honekin goiz bikaina antolatu dugu". Estitxu Etxeberria Barandiaran kultur teknikariak jakinarazi duenez, Munduko Arrozak festetako ostegunean, agorriaren 3an, izanen da. "Jatekoak 10:00etan hasiko dira prestatzen, eta, 13:30 aldera, probatzera emanen dute".

Dastatu nahi dutenek boluntarioen mahaian jasoko dituzte tresnak. Euro bat ordaindu behar du platertxoaren, koilararen eta ahozapiaren truke. Eta sorpresaren bat. Hondakin gutxiago sortzeko, plater berean arrozak dastatzeko deia egin dute antolatzaileek. Ateratzen den dirua

Munduko Arrozen azpiegiturara bideratuko da.

Zergatia

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Zerbitzuko kulturartekotasun teknikari Begoña Zestau Baraibarrek gogorarazi du Etxarri Aranatz "kultur anitza" dela, "jatorri anitzeko hamaika biztanle daude". Nabarmendu du arroza munduan barna jan daitkeen jakia dela, "zentzu horretan, arrotzak gizaki denak berdin egiten gaitu. Ohitura, sorleku edo bizimoduaren arabera, arroza prestatzeko modua desberdina da. Ekimen honekin plazaratu nahi duguna da: desberdinak bezain anitzak garela gizakiak". Ekimenaren bidez, herrian dagoen aniztasuna plazaratu nahi dute, eta elkarren ondoan goiz polit bat pasatzeko aukera eskaini nahi dute. "Arrozaren bidez elkarren arteko hurbiltzea lortu nahi dugu". Hori lortzeko modua da arroza prestatzen ari diren bitartean sukaldariei errezetaren edo osagaien inguruko galderak egitea. Edo dastatu ondoren iritzia jakinaraztea. "Oso jaki goxoak prestatzen dira, eta hura prestatu duen pertsonarekiko gelditzen zaigun oroitzapena positiboa izaten da. Horrekin, izaten ditugun irudi ez oso zuzen batzuk hausten hasi nahi dugu", azaldu du Zestauk. Aurreratu duenez, ez du gehiago argitu nahi izan, errezeta berezi bat ere eskainiko dute ere.



Joan den urteko Munduko Arrozak. ARTXIBOA

Jakia prestatzen aritu nahi duenak hots egin dezala 648 070 710 telefono zenbakira. Gaur da azken eguna. Antolakuntzak honakoak jartzen ditu: jakiak, suak, butano bonbonak, eltzeak eta sukaldako tresnak.

Parte hartzeko beste bide batzuk ere badaude. Goiz horretan bakarren batek ekimenaren espirituarekin bat datorren zerbait egin nahi badu (margotu, antzetzu, grafia jakin batean idatzi, musika jo...) aukera du. Bestalde, Anitzartean Zerbitzuak plazan sentsibilizazio txoko bat jarriko du. "Han aniztasunarekin, giza eskubideekin eta zurrumurruekin desaktibatzen proposamenekin zerikusia duten mezuak izanen dira".



17:00-19:00 Jolas parkea, haurrendako.
17:30 Flotadorien goitibehera, gaztetxeko aldapan.

EGAK antolatuta.

18:00 XXVIII. Play Back txapelketa, plazan.

Sariak: koreografia onenari 100 euro; euskal abesti onenari 100 euro; parte hartzen duen talde bakoitzari 25 euro.

19:00 Auzate Mundiala.

Festa Batzordeak antolatuta.

20:00 Rockalean taldearen musika emanaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

22:15 Bakarriketa: Julen Portillo eta Maria Blanco.

Festa Batzordeak antolatuta.

23:00 Kontzertuak: Willis Drummond eta Dupla.

ABUZTUAK 2 Asteazkena

AITTUN-AMIÑAN EGUNA

11:30 Auzatea.

Hartzabal elkarteak prestaturik.

12:00 Meza, elizak antolatuta.

Haurrendako apar festa.

Oharra: bainujantzia eta txankletak eraman.

13:00 Etxarriko Buruhandiak eta japoniar bonbak.

Bertso saioa: Saats Karasatorre, Joanes Illarregi, Alaia Martin eta Uxue Alberdi. Gai jartzailea: Eneko Lazkoz.

14:30 Aittun-Amiñan bazkaria.

15:00 Bazkaria, gaztetxe gaineko estalopean.

EGAK antolatuta.

16:00 Aitor soinu-jole eta musikariaren kontzertua.

17:00 Bingoa, gaztetxean.

EGAK antolatuta.

18:00 Haurrendako Animazioa:

Zirika Zirkus jolas jaia.

19:00 Elektrotxufila elektrotxaranga.

EGAK antolatuta.

20:00-22:00 Muxutruk taldearekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

23:00 Kontzertuak: Galazotak,

Sustrai berriak eta Herdoil taldeak, gaztetxean.

EGAK antolatuta.

00:00-03:00 Muxutruk taldearekin dantzaldia.

Txupito festa, txoznan.

Festa Batzordeak antolatuta

ABUZTUAK 3 Osteguna

KINTUEN EGUNA

08:00 Gurdi dementie.

EGAK antolatuta.

10:00 Dianak Eskartxa txarangarekin, urteko kintoek antolatuta. Kintoek etxez etxe dirua eskatuko dute.

Munduko arrozak.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak antolatuta.

11:30 Auzatea urteko kintoek prestaturik.

13:00 Etxarriko Buruhandiak eta japoniar bonbak.

Eskartxa txarangarekin emanaldia.

Urteko kintoek antolatuta.

15:00 Kintoen bazkaria.

17:30 Eskartxa txarangaren emanaldia.

Urteko kintoek antolatuta.

18:30 Ginkana.

Urteko kintoek antolatuta.

19:00 Pintxopotea.

Festa Batzordeak antolatuta.

20:00-22:00 Zazpizar taldearekin erromeria.

22:00 Zezensuzkoa.

23:00-00:30 Zazpizar taldearekin erromeria.

ABUZTUAK 4 ostirala

INUTILLAN EGUNA

EGAK ANTOLATUTA

11:30 Sardinada, plazan.

12:00 Burrunbada.

12:30 Karaokea.

14:30 Bazkaria, plazan.

16:55 Pregona.

17:00 Desfilea.

19:00 Kapea.

22:00 Zezensuzkoa.

23:00 Kontzertuak: Akerbeltza, plazan.

Fresa Morango DJ, gaztetxean.



BAKAIKU Bakaikuko festetan, besteak beste, Etorbizuna dantza taldeko emanaldia izan zen.



OLATZAGUTIA 2022an jaiotako olaztiarrek zapia jaso ondoren, txupinazoa Maisuenea Gaztetxeko kideek bota zuten.

GANUZA ANAIK

948 460 203
Faxa: 948 460 673

Zumurdiñeta Industrialdea
Etxarri Aranatz

c.ganuzac@cocinasganuza.com
www.cocinasganuza.com

LORES

Utzubar Industrialdea Arbizu
948 460 499

Nefarroako berezko txistorra.

Igoa arroindegi

Ongipasa festetan!!

948 460 111 -
Arkuetabide Kalea - Etxarri Aranatz

MARINELETXE HARATEGIA

ETXEKO ODOLKIATK
ETA KROKETAK

Ongi pasa festak!

948 46 19 80
636 70 74 88

Larrañeta Kalea 6
Etxarri Aranatz

Adinekoen bakardadea jo puntuan jarrita

Teknologia eta ekintza komunitarioa biztanleria zaurgarrienaren zerbitzura jartzeko proiektu pilotua martxan dago Sakanan. Hainbat eragilek sustatu dute eta Europako Batasunaren Next Generation funtseko dirulaguntza jaso du

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Bizi itxaropena luzatzearekin batera, gizartea gero eta zaharragoa da. "Gizarte gisa erantzuna eman behar diogu horri. Landa eremuan bizitzeak eta despopulazioak asko eragiten die pertsoneri. Guk adinekoen bakardadean jarri dugu fokua", azaldu du Ekaitz Irujo Compainsek, Zakan Sozial kooperatibako kideak. Erakunde hori, Sakanako Garapen Agentziarekin (SGA), ibarreko hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin (OGZ) eta udalekin batera, Teknoadineko Landalab Sakana proiektua lantzen ari dira. "Gipuzkoan eta Bizkaian landu dute, baina udal mailan. Guk OGZen mankomunitateekin ari gara, eta Nafarroan proiektu pilotua da", azaldu du Irujok. Egitasmoak Bertan proiektuaren baitan eman zituen aurreneko pausoak, eta orain sakontzeko garaia da.

Gaineratu duenez, "bakardadea askotan ez da ikusten; haien etxetan dauden eta komunitatearen bizitzan parte hartzen ez duten pertsonak daude. Nahi ez den bakardade horrek osasunari eragiten dio, bai emozioei bai egoera fisikoari. Hor eragin nahi dugu; nahi ez duten bakardadean bizi diren eta zaurgarritasun sozialean dauden 65 urtetik gorako pertsonak garaiz identifikatu eta lagundu nahi ditugu. Ahalik eta gehien bizi daitezen haien etxetan eta komunitateetan". Horrekin batera, proiektuak beste bi helburu ditu. Batetik, OGZak identifikazio lan horretan laguntzea teknologia esku-hartze sozialean aplikatuz, eta haien lidergoia sustatuz. Bestetik, zaintza komunitarioko sare bat sortzeko.

Lanean hasiak

Lehenik, OGZetako langileen ordenagailuetan informazio sistema integrala da. "53 adierazlekin elikatutako algoritmo bat



Adineko emakumezkoa paseatzen. ARTXIBOA

"PROIEKTUAREN BIDEZ ADINEKOEN BIZI KALITATEA HOBETZEAREN ALDE EGITEN DA"

da. Erakundeek eta zaintza sareko herritarrek emandako datuekin hornitzen da. Horrek pertsona bakoitzaren berri ematen digu". Bost maila eta kolore dituen graduazio sistema baten bidez OGZetako langileek, plataforma informatikoari begiratu bakarria emanda, aurrediagnosia egiteko aukera izanen dute. Bost mailak dira: ongizatea, zaurgarritasuna, arina, moderatua eta larria. Taula batean edo mapan geolokalizatuta ikusgai izanen dituzte gizarte langileek.

Aldi berean, adinekoak zaindu dezaketen pertsonak proiektura erakartzeko pausoa ere ematen hasi dira. "Pertsona horiek aukeratzeko irizpideak zehaztuta ditugu. Gainera, trebatu egin beharko dute. Jakin beharko dute gure iritiz zer den bakardadea eta beste. Bestetik, sortu dugun telefono mugikorretarako apli-

kazioaren erabilera ezagutu beharko dute".

Auzozainak izena eman diete adinekoen zaintzan lagunduko duten pertsoneri. "Adinekoen beharrekiko sentiberak, adeitsuak eta arretatsuak izan behar dute. Eta, batez ere, gaituta egon behar dute". Auzozainak izan daitezkeenak dira: okinak, botikariak, jubilatutakoak... Lagundu nahi duenak <https://labur.eus/QTkBO> galdetegia erantzun dezake. "Komunitate bera izanen da zaintza kultura sortzen joanen dena, eta bertako pertsonak elkar zainduko dute". Bi egiteko horietan urte akaberara arte ariko dira. Irujok azaldu duenez, "bi urterako proiektua zen, baina dirulaguntzak berandu ebatzi zituztenez, proiektu osoa garatzeko lanean ari gara".

Jarraipena

Proiektuaren hurrengo bi faseen helburua litzateke "adinekoen esku hartzean gehiago dituzkeko lirateke; helburua litzateke komunitatean zaintzaren kultura hedatzea", azaldu du Irujok. Hala, jasotako datuekin zein kasutan esku hartuko duten erabakiko lukete hirugarren kasuan. "Apli-

kazioaren datuak gizarte langileen informazioarekin alderatuko da, eta, horrela, erabakiko dute zein kasutan esku hartu". Hori egin da, pertsona horiengana joko lukete elkarrikeria egin eta galdetegi bat osatzeko. Jasotako informazio guztia aztertu ondoren, adinekoarekin batera baloratuko lukete programan sartzea. Hala bada, pertsona bakoitzari propio diseinatutako plan bat egingen lukete. "Auzozain batekin harremanetan jartzea komeni den erabakiko da, beti ere, adinekoaren oniritzia badago. Parte hartzea borondatezkoa da".

Hiru auzozaintza mota aurreikusi dituzte: profesionala, esaterako, medikuek zaurgarritasun egoera antzematen dutenean aktiba ditzakeen baliabideak; komunitate auzozaina, egunerokoan adinekoarekin harremana

duten okinak, botikariak eta bestek egin dezaketena eta pertsonalizatutako auzozaintzak adineko bat zaintzaile batekin lotuko luke, haren jarraipena egiteko.

Azken fasean "helburua da guk alde egitea eta proiektua Sakanan autonomoa izatea. Horretarako, administrazioak halako politika publikoak mantentzearen alde egin beharko du. Kasu honetan, adinekoen bizi kalitatea hobetzearen alde egiten da".

Proiektuaren eraginaren artean daude adinekoek segurtasun eta babes gehiago izatea, eta etxean bizitzearen segurtasun sustatzea". Bestetik, normalean zaintzen ardurara hartzen duten familiak ere onuradunak dira, OGZen babesa jasotzen baitute. Gainera, komunitatean zaintza kultura sortu eta kohesioa sustatzen du.

SAKANAKO ERRALDOIAK

Kolorista Uraru




ESKUALDEKO
LIBURU-DENDA HAUJETA SALBAL
BURZIN ELUSTONDO 31 MARTXUETA
ETARRA 1000 KAXETA
ALTSASU ARKATZ 111 LIBURUNDA





NAFARROAKO FUTBOL FEDERAZIOA

Harean bidea zabalduz

HONDARTZA FUTBOLA Aurten sortu den emakumezkoen Nafarroako hondartza futbol selekzioak Espainiako Txapelketan parte hartu du, Melillan. Irati Igoa etxarriarra selekzioko kidea da. Nafarroak ezin izan zuen aurrera egin, Murtziaren kontra (1 eta 6) eta Balear Uharteren kontra (1 eta 10) galduta. Esperientziarekin "pozik", kirol honetan bidea egiten jarraitzeko prest daude.

HIZKETAN
beleixe

Elkarrizketa guztiak
www.guaixe.eus

Andiarena, gerrak olinpiko izaten utzi ez zuena

TXIRRINDULARITZA 1936ko uztailaren 19tik 26ra Bartzelonako Herri Olinpiadak ziren jokatzekoak, Hitlerren Alemanian jokatzeko ari ziren Olinpiar Jokoen alternatiba. Justiniano Andiarena altsasuarra zegoen bertan. Osasuna Memoriak jaso du historia

Maidar Betelu Ganboa SAKANA 1931n Bartzelonak eta Berlinek lehia estua izan zuten 1936ko Olinpiar Jokoen egoitza izateko, eta, azkenean, Alemania aukeratu zuten. 1933an Hitlerrek boterea lortu zuen, eta bere agindupean jokatu ziren 1936ko Olinpiar Jokoa. Nazismoari kontra egiteko, eta alternatiba gisa, Bartzelonako Herri Olinpiadak antolatu ziren, 1936ko uztailaren 19tik 26ra jokatzekoak zirenak. Ekimenak arrakasta itzela izan zuen, 22 herrialdeetako 6.000 kirolari baino gehiago parte hartzekoak zirelako, Berlinen aritu ziren 3.900 kirolariren aldean. Tamalez, uztailaren 18an piztu-tako altxamenduak eta Gerrate Zibilak guztia zapuztu zuen. Osasuna Memoriak ikerketa lan itzela egin du Bartzelonara hurbildu ziren kirolari nafarrei buruzko historia jasotzeko. Tartean, Justiniano Andiarena Monton txirrindulari altsasuarraren historia jaso du.



Andiarena, behean. OSASUNA MEMORIA

Andiarena, txirrindularia

Justiniano Andiarena Monton (Altsasu, 1912, Bartzelona 1979) Union Ciclista Navarra taldeko txirrindularia zen. 1934ko uztailaren 29an Nafarroako Txapelketa irabazi zuen. "Matxuragatik

bizikleta aldatu behar izan zuen, baina Azpiroz eta San Migeltxo gaintan nagusitu zen, Iruñeko helmugara bakarrik helduz eta Isaba bigarrenari minutu eta erdia ateraz" jasotzen du Osasuna Memoriaren lanak. Urte horretan Iruñeko Zirkuitua eta Urrestillako lasterketa irabazi zituen, eta aurretik Lizasokoan gailendu zen eta Burgosen eta Zamoran ere hainbat probatan parte hartu zuen. Azken honetan erorikoa izan zuen. "Gerrate Zibila nola bizi zuen, zer gertatu zitzaion, ez dugu jakiterik izan. Bere anaietako bat, Benedicto, irakaslea, prozesatu zuten eta 30 urteko kartzela jarri zioten matxinatzeaz akusatuta. Justiniano Bartzelonan zendu zen, 1979an.

Ikerketa lanean jasotzen denez, uztailaren 18an, 17:00etan abiatu ziren kirolariak, trenez, Iruñetik. Baina Bartzelonako harrera "tiro saltsa" izan zen, Baldomero Barón Natacioneko sortzailearen hitzetan.



XOTA

Lemazain berriaren aginduetara

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xota bueltan da. Talde berdeak asteazkenean egin zuen 2023/2024 denboraldiko lehen entrenamendua. Orain arte Imanol Arregiren bigarrena zen Miguel Hernandezek gidatuko du taldea ibilbide berrian. Gogotsu dago plantilla, eta

Lehen mailan dena eman eta kategoriari eustea da helburu nagusia. Inter eta Palmatik bueltan datorren Dani Saldiseren itzulerak ilusio handia piztu du, eta giro ezin hobea dago Anaitasunan. Aurre denboraldian lagun arteko lau partida dituzte aurretik.



Aitzol Zelaia bizikletako tartea bukatzen. Altsasuarra haurren mailako txapeliduna izan zen.

Mikel Arrizabalagaren eta Aitzol Zelaiaren garaipen gozoa Urdiainen

TRIATLOIA Urdiaingo Aitziber igerilekuek XXI. Sakanako Haur Triatloia hartu zuten larunbatean. Parte hartu zuten triatletek gogotsu osatu zituzten igeriketa, bizikleta eta korrika saioak. Bi garaipen Sakanako Triatloi taldean geratu ziren

Maidar Betelu Ganboa URDIAIN Goiza fresko zela –Urdiaingo igerilekuetako ura zer esanik ez– abiatu zen Mank-ek eta Sakanako Triatloi Taldeak antolatutako XXI. Sakanako Haur Triatloia, Urdiaingo Urrizti paraje ederretan eta inguruetan. Guztira 44 triatloi zeuden izena emanda, aurreko edizioetan baino gutxiago, eta juniorrak izan ziren goiztiarrenak. Atzetik kadeteen, infantilen, kimuen eta benjaminen txanda izan zen.

Guztia antolatzen eta Nafarroako Triatloi Federazioko epaileei laguntzen Amaia Gerrickagoitia kirol teknikaria zebilen, Sakanako Triatloi Campuseko Ekhi Congil eta Oihan Soto monitorean eta Sakanako Triatloi taldeko eta bestelako boluntarioekin. Campuseko ikasleak Sakanako Triatloi Taldearen izenean lehiatu ziren.

Jubeniletan Eneko Izco (Saltoki) gailendu zen, alde handiz. Jorge Diaz (Sakana) laugarren sailkatu zen, eta Irati Sicilia (Arenas) izan zen emakumezko bakarra.

Bi garaipen sakandar

Kadeteen mailan mugimendu eta lehia gehiago egon zen. Mikel Arrizabalagak (Sakana) eta Javier Alcaidek (Saltoki) borroka gogorra izan zuten, baina korrikako sektorean Arrizabalagak tartea atera zuen, eta bakarrik iritsi zen helmugara. 14 segundo atera zizkion Alcaideri.

SAKANAKO TRIATLOI CAMPUSEKO PARTAIDEAK LEHIATU ZIREN URDIAINEN, GIRO EDERREAN

Emakumezkoetan, Iria Alvarrek (Saltoki) irabazi zuen. Sakana taldeko Iker Escudero zazpigarren iritsi zen; eta Xabat Arraiza zortzigarren.

Haurren mailan Sakanako Triatloi taldeko bigarren garaipena iritsi zen, Aitzol Zelaia ikusgarri aritu baitzen, Mikel Señas (Hiru Herri) bigarrenari 42 segundo aterata. Oihan Anduezak (Sakana) osatu zuen podiuma. Aratz Mendoza (Saltoki) bosgarren sailkatu zen. Emakumezkoetan, Itziar Arrosagarai (Saltoki) gailendu zen.

Kimuen mailan Amets Dean (Zona Media) eta Elayne Mariezcurrrena (Hiruki) izan ziren azkarrenak, eta benjaminen mailan Unai Señas (Hiru Herri) eta Ana Lainez (Arenas).

Sakanako Triatloi taldekoek gozoz ospatu zituzten bi kideen garaipenak.



Trantsizio gunean bizikletak eta materiala kokatzen.



Oihan Andueza, trantsizio gunetik ateratzen, ahalegin betean.



Sakana Triatloi Taldeko kideak probaren bukaeran.



Mikel Arrizabalaga, helmugan lehena.



Aratz Mendoza, Saltoki taldearekin.

Kings League, Lakuntzan

ARETO FUTBOLA Lakuntzako 12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek Kings League Lakuntza torneooa antolatu dute, Gerard Piquek eta Ibai Llanosek sortutako txapelketari jarraiki. Torneoak arrakasta itzela lortu du

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA Gerard Pique Barcelonako futbolari ohiari eta Ibai Llanos streamer bizkaitarrari, Twitch saio batean futbolari buruz solasean ari zirela, bestelako futbol txapelketa bat antolatzeko ideia sortu zitzaion. Bestelako araudia zuten txapelketa antolatu nahi zuten, futbol txapelketa biziagoa eta interesgarriagoa sortzeko. Horrela sortu zen Kings League torneoa 2022an, "futbol berria", araudi berriari, streamerrei eta sare sozialei esker futbola hankaz gora jarri duena.

Kings League ofiziala Twitch plataformako kanalean jarraitu daiteke, eta sekulako arrakasta izaten ari da. Emakumezkoen Queens League ere antolatu dute, eta 10 eta 12 urte bitarteko haurrendako Prince Cup.

Kings League ofiziala

Larunbatean, uztailaren 29an, udako Kings eta Queens League torneo edo 2. splitoko finalerdiak eta final handia jokatu dira Civitas Metropolitanon (Madrid). Neguko 1. split edo torneooko Final Fourra edo Lauko finala Bartzelonako Camp Nouan jokatu zen martxoaren 26an, eta futbol zelaia goraino bete zen. Adri Contreras presidentearen El Barrio taldea izan zen txapeldun handia. Larunbatean ere Madrid gainezka egotea espero da.

Kings eta Queens Leaguek horrenbesteko interesa piztu dute, non antolatzaileek 2024an txapelketa hainbat herrialdeetara zabalduko duten. Brasil, Mexiko, Frantzia eta Italiak Kings Leaguea izango omen dute.

Torneo honek sekulako ikusmina sortu duela ezin da uka. Zurrumbilo horretan, txapelketa gurera ere iritsi da, baina modu xume eta herrikoian, Lakuntza-

ko 12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek Kings League Lakuntza torneooa antolatu baitute, eurek ere espero ez zuten arrakasta izaten ari dena.

Lakuntza Kings League

"Piquek eta Ibaik antolatzen duten Kings League torneooa jarraitzen dugu; asko gustatzen zaigu. Horregatik, geuk ere udan antzeko zerbait egin ahal genuela pentsatu genuen" azaldu dute Lakuntza Kings Leagueko antolatzaileek. 2009an, 2010ean eta 2011n jaiotako gaztetxoak dira, 12 eta 14 urte bitartekoak.

Pentsatu eta ekin. Instagramen kontu bat zabaldu (lakuntzakingsleague) eta bertan azaldu zituzten txapelketaren baldintzak. Horrekin batera, torneorako beharrezko dituzten elementuak prestatzen hasi ziren: kartak, dadoa eta bestelakoak. Torneoko baldintza nagusia adina zen. "2009an eta 2011 urte bitartean jaiotakoek eman zezaketzen izena, ez zaharragoek ezta gazteagoek ere". Txapelketa Lakuntzako parkeko pistan jokatu zenez, ez zen futbolekoa izango, areto futbolekoa baizik. "Berehala hasi zen jendea txapelketan izena ematen. Bost ordutan guk aurreikusitako kopurua bete zen, zortzi talde, eta izena ematea gelditu genuen" diote antolatzaileek. Talde bakoitzak 10 euro ordaindu zituen, "sariak prestatzeko".

Gaztetxoek Kings League torneo ofizialaren arauak hartu

**"GEUK ERE UDAN
ANTZEKO ZERBAIT
EGIN AHAL GENUELA
PENTSATU GENUEN"**

KINGS LEAGUE LAKUNTZA

dituzte oinarri. "Nahiko antzekoak dira, baina gurea areto futbola da, eta moldaketa txiki batzuk egin ditugu". Horrela, Lakuntza Kings League partida bakoitzak 15 minutuko bi zati edo denbora ditu. Zazpi jardunaldiko ligaxka jokatzen ari da -igandean, uztailak 30, seigarren jardunaldia dago jokoan, azken aurrekoa -, eta oraindik zehaztu ez den datan Final Fourra edo Lauko Finala jokatuko da, hau da, finalerdiak eta final handia, biak egun berean.

Zortzi taldeak

Lakuntza Kings League lehia-tzen ari diren taldeak zortzi dira: Sakana FT (lakuntzarrak, arbi-zuarrak eta uhartearrak); Mamadu (lakuntzarrak eta bakai-kuar eta etxarriar bana); Lakuntzako Dinosauriyuek (lakuntzarrak, irintarrak eta arbizar, olaztiar eta etxarriar bana); Etxarri FC. etxarriarrak; Erreka (altsasuarrak); M.L.K. (altsasuarrak); Los robacartas (lakuntzarrak, arbizuarrak eta etxarriarrak) eta Lakaka (altsasuarrak). Kings Leaguearen araudiari jarraiki, talde bakoitzak presidentea eta entrenatzailea ditu. "Presidenteak 2009 eta 2011 urteen artean jaiotakoa behar du izan, jokalaria bezala. Entrenatzailearen adinak, aldiz, ez du axola. Nahi izanez gero, entrenatzailea eta presidentea pertsona bera izan daitezke".

Kartak

Talde bakoitzak atezaina eta lau jokalarirekin jokatzen du. "Hasieran, aulkian jokalaria bat edo ordezkoko bat egotea zehaztu genuen, baina ikusi genuen jokalaria nahiko nekatzen zirela eta azkenean, talde bakoitzak aulkian bi jokalaria edo ordezkoko



Kings League Lakuntza areto futbol torneooa antolatu duten gaztetxoak, uztailaren 21ean jokatu zuten



Formatoari esker, partidak entrenigarriagoak dira.



Partidak ezin dira berdinketan despeditu; penaltiek erabakitzen dute.



en bosgarren jardunaldia baino lehen.



Ikusle asko biltzen dira parkean partidak jarraitzera.



Oraindik ez dakite Final Fourra noiz jokatu den.

izatea erabaki genuen. Partidan talde bakoitzak nahi dituen aldaketa guztiak egin ditzake" diote antolatzaileek.

Partida hasieran talde bakoitzak karta bana hartzen du, bere ezkutuko arma izango dena. "Karta bakoitzak egoera bat jasotzen du. Esaterako, penalti bat suertatu ahal zaizu, edo gol bikoitza, presidente penaltia (taldeko presidenteak jaurti beharreko penaltia), 2 minututan jokalaria bat gutxiagorekin jokatzea... halako gauzak. Talde bakoitzak, arbitroari esanda, partidan nahi duenean atera dezake bere karta, beti ere lehen edo bigarren zatia bukatzeko baino bi minutu lehenago baldin bada. Eta une horretan, partida gelditzen da eta kartak dioena egin beharko da. Jokaldi estrategikoa da" diote gazteek.

Txapelketa berezi honetako araudiari jarraiki, partidako azken bi minutuetan gola sartzen bada, gol horrek balio bikoitza du, bi gol izango balira bezala. Partida ere modu berezian hasten da, baloia zelai erdian jartzen delako eta bi taldeetako jokalaria korrika ateratzen direlako baloiaren bila. Beste berrikuntza bat da partida ezin dela berdinketarekin bukatu. Berdinketa badago, zelai erditik abiatuko diren penalti jaurtiketekin erabakiko da irabazlea.

Dado erraldoia

Kings Leaguera jarraiki, Lakuntzako torneoarako gazteek prestatu duten dado erraldoia erabakigarria izaten da partidetan. "Lehen zatiko 13. minutuan arbitroak partida gelditzen du, eta dadoa bota behar da. Bat zenbakia ateratzen bada, talde bakoitzak jokalaria bakarrarekin jarraitu beharko du lehen zatia bukatzeko falta diren 2 minutuak. Jokalaria bat beste baten kontra. Ate batean bata, eta bestean bestea. Talde bakoitzak edozein jokalaria aukeratu ahal du geratzeko, ez du zertan atezaina izan. Ezin izango dira markatutako ilargi erdi itxurako gunetik pasatu. Beraz, espazio horretatik jaurtiketak egin beharko dituzte" diote antolatzaileek.

Dadoan bi ateratzen bada, bi biren kontra aritu beharko dira; eta, horrela, errenkadan. Dadoak ez du sei zenbakia, talde bakoitzak bost jokalaria dituelako. "Seiaren ordezkariak Lagun Artearen armarrria du gure dadoak. Armarrria atez-

ratzen bada, talde bakoitzean atezaina eta jokalaria bat geratuko dira. Kasu honetan, atezainak ezingo dira areatik atera, eta beste bi jokalariek bat bestearen kontra jokatuko dute, erregateatzen eta jaurtiketak egiten.

Arbitroarekiko errespetua

Arau asko dira, arbitroarendako ere nahikoa lan. Gaztetxoak hasi ziren partidak epaitzen, "baina arbitratzea ez da erraza. Gainera, geu ere jokalaria garenez, ez genuen nahi inork pentsatzea bata edo bestearen alde egiten genuenik. Horregatik, Oskar Maizari faborea eskatu genion. Arbitro zorrotza da, ona. Baietz erantzun, eta bera da orain arbitroa, gutako baten laguntzarekin".

Araudiak jasotzen duenez, arbitroaren erabakiak errespetatzea da garrantzitsua. Eta irainak eta bestelakoak ez dira onartzen. Bestela, zigorrak aurreikusten dira. Arbitroak partidaren txartel horia ateratzen bada, jokalaria-ri santzioa jarriko zaio: 2 minutu, jokatu gabe. Txartela gorriak dakarren santzioa handiagoa da: 5 minutu jokatu gabe. Horretaz gain, ezingo du hurrengo partida jokatu.

Txapelketa biziagoa

Arau horiek guztiak bizia ematen diote torneoari. Kings League formatuko partidak "ohikoak baino entretenigarriagoak dira. 6 eta 2 galtzen joan zaitezke, baina gol bikoitzari eta kartari esker, partidari buelta eman ahal diozu. Futbol partida normal batean zailagoa da hori" diote gaztetxoek.

Lakuntzako torneoak duen mailari "oso ona" deritzote. "Xotan eta Nafarroako selekzioan jokatu duen jendea dago, jokalaria oso onak. Jende oso ona dago, gure adineko Sakanako jokalaria hoberenak. Eta baita horren onak ez direnak. Denetatik". Etxarri Aranatz jotzen dute favorito. "Gol asko sartzen ditu, eta talde oso ona du". Lakaka eta Lakuntzako Dinosauriyek ere ongi omen dabilta.

Bere xumean antolatutako torneoak halako harrera izango zuenik ez zuten espero. "Jende asko hurbiltzen da parkera partidak ikustera, Sakanako herri askotatik etorrira. Giro ona egoten da. Txapelketa antolatzearekin oso ideia ona izan dugula esan izan digute".

Ligaxkaren ondoren, Lauko Finala edo Final Fourra jokatu-

Kings League Lakuntza

Igandean, uztailak 30, Kings League Lakuntzako 6. jardunaldia, parkean.

6. jardunaldia

- **16:30** Etxarri FC - M.L.K.
- **17:15** Sakana FT - Mamadu
- **18:00** Los Robacartas - Lakaka
- **18:45** Lakuntzako Dinosauriyek - Erreka

Sailkapena

1. Etxarri FC (14 puntu)
2. Lakaka (13 puntu)
3. Lakuntzako Dinosauriyek (12 puntu)
4. M.L.K. (7 puntu)
5. Erreka (6 puntu)
6. Mamadu (5 puntu)
7. Sakana FT (3 puntu)
8. Los Robacartas (punturik ez)

ko dute ligan lehen bi postuetan sailkatzen diren lehen bi taldeek eta play-offak gainditzen dituzten beste bi taldeek. "Ligan hirugarren sailkatu den taldearen kontra jokatu du eta laugarren sailkatu denak bosgarren sailkatu denaren kontra. Bi talde irabazleak Final Fourrerako sailkatuko dira". Lauko Finalerako ez dute datarik jarri. "Oporrak daude tartean, ez da erraza data jartzea. Oraindik ez dakigu, baina Lakuntzako festak baino lehen izango da". Momentuz, igandean ligaxkako seigarren jardunaldia dute jokoan, azken aurrekoa.

Guztiendako dominak

Kings League Lakuntza torneo-ko antolatzaileak sariak prestatzen ari dira, guraso batzuen laguntzarekin. "Parte hartzaile guztiendako dominak egongo dira, eta txapeldunendako kopa. Ez dakigu sari gehiago prestatuko ditugun" diote.

Gurasoen laguntzaz gain, Lakuntzako Udalaren laguntza eskertu dute. "Parkean torneo antolatzeko baimena emateaz gain, Udalak Kultur Etxean tokia eta bertara sartzeko txartela utzi digu. Eskertuta gaude, baita Oskar Maiza arbitroarekin ere". Aurtengo txapelketa ongi ateratzen ari da, eta ez dute datorren urtean beste bat antolatzea baztertzen. "Ikusiko dugu, baina izan daiteke" diote irribarrez.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 28

ALTSASU Abentura proba.

Altsasu Xtrem probaren laugarren edizioa, Altsasuko Gazte Asanbladak eta Altsasuko Gazte Koordinadora Sozialistak antolatuta.

16:00etatik aurrera, gaztetxean.

LAKUNTZA Mus txapelketa.

MUS azkarra txapelketa.

17:00etan, Gure Nahia elkartearen.

ZIORDIA Kontzertua.

Mano lenta eta DJ Miamiren emanaldia.

20:00etan, Etxaleku tabernan.

LARUNBATA 29

ALTSASU Abentura proba.

Altsasu Xtrem probaren laugarren edizioa, Altsasuko Gazte Asanbladak eta Altsasuko Gazte Koordinadora Sozialistak antolatuta.

Goiz eta eguerdian, probak;
20:00etan, gala, gaztetxean.

LAKUNTZA Txirrindularitza.

Eskolen mailako Lakuntza lasterketa, Aralar Txirrindularitza Taldeak antolatuta. Herrian barna prestatutako 1.000 metroko zirkuitua.

16:00etan, plazan eta Larrainetako pistan.

ALTSASU Afari-merienda.

Zelai kaleko auzotarren afari-merienda.

19:00 Kalejira, auzotik, eta dantza plazan, Babian.

20:00 Haurrendako jolasak.

20:45 Afari-merienda.

Afal ostean, herri bingoa eta musika.

IGANDEA 30

ALTSASU Mendi irteera.

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak Urdalur - Txurrupunta - Alzania 6 kilometroko ibilbidea egingen du.

08:00etan, taldearen egoitzatik.



UTZITAKOA

IRURTZUN Irati Moreno Blas artistaren 'El vértigo del corazón' erakusketa.

Uztailaren 24tik aurrera. Pikuxarren.

IRAGARKI SAILKATUAK

SALDU**OSASUNA**

Audifono digitala (ia berria) merkatuko prezioaren %50 (kargagailua, kablea eta kutxa barne): Audifono digitala, kargagarria, eta bluetooth sistemarekin, Signia Motion C&G SP 2X BG - JCL1118 modeloa, 2022ko azaroan erositakoa, eta oso gutxi erabilia. Garantiaren barruan dago (2 urte), eta prezioaren barruan tresna saldu zigan audiometristaren lana sartzen da: erabiltzaile berriari audiometria egitea eta audifonoa programatzea (Altsasun). Harremanetarako 665 998 446.

LANA/NEGOZIOAK**ALOKAGAI**

Altsasun Coworking bulego autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatze bulego; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta officea ditugu. Aukera paregabe! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

OHARRAK

Odol emateak Uhartre Arakilen: abuztuaren 9an, 16:45tik 21:00etara, Aralar

Mendi Elkartearen. www.adona.es/eu webgunean informazio gehiago.

Odol emateak Etxarri Aranatz: Irailaren 6an eta 13an, asteazkenetan, 17:00etatik 21:00etara, Osasun Etxean.

Etxarri Aranazko ferietako azokan parte hartzeko izen ematea zabalik: Lastailaren 1ean ospatuko den ferieren barruan azokan ekoizle edo artisau moduan produktuak saltzen egon nahi dutenek izena eman dezakete agorrilaren 18ra arte azoka@etxarriaranatz.eus helbidera idatziz, 948 460 004, 948 460 930 edo 606 239 008 telefonoetara deituz edo udalera gerturatuz. Udaletik azaldu dute, bakarrik aukeratuak izan direnei jakinaraziko dietela parte hartuko dutela agorrilaren 23an. Aukeraketarako irizpideak: egindako lanaren kalitatea, Etxarri Aranazko edo Sakanako herritarra izatea, artisauek ziurtagiria izatea, azokan bertan norberaren lanaren erakustaldia egitea.

Etxarri Aranazko Udalak euskara ikasleendako dirulaguntza bideratu du: Euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren herritarrei zuzenduta dago, ikastaro estentsibo eta trinkoak, kon-

kretuki. Eskabideak aurkezteko epea irailaren 6ra arte dago zabalik. Informazio gehiago eta eskabidea egiteko orria www.etxarriaranatz.eus web orrian.

Udako Sakanako Mintzakeria taldeak: Etxarri Aranatz astean behin, bazkalondoren Xapatero tabernan, Altsasun astean behin goizetan eta beste herrietan herriz herri (astero leku batean). Zatoz gurekin dohainik da! Izena emateko whatsapp bidali 600 482 024 telefonora.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetatik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzi whatsapp mezua zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Euskara hutsezko Udalekuetara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitar-

te burutu behar dira. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

Euskalduntzen edo alfabetatzen ari direnendako dirulaguntzak: 2022ko uztailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikulak lagunduko dira, kilometrajea ez da diruz lagunduko. Ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informatika bidezkoak, C2 mailakoak barne. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko uztailaren 31n amaizten da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkarrekin zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaizten da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museoa bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoa ikusi eta bisita egiteko orduetegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

Arropa bilketa: Baduzu erabiltzen ez duzun arroparik, eta ez dakizu zer egin? Arakilgo udalbatzearen arropen bilketa gune bat irekitzera goaz. Hilaibeteko lehen azoka egunean, asteartean, 11:00etatik 13:00etara. Errotulapean dagoen Elkarri Laguntza Elkarteak duen egoitzara eramango dugu, bilketaren biharamunean. Itxipuru Taldea 620 254 230 eta Mank Anitzartean 648 070 710 antolatuta.

Konposta eskuragai: Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du donon har dezakeela konposta Arbizuko UtzubarEKOguneko konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburra.eus

Bazkide zozketa

UZTAILEKO SARIDUNAK

1. SARIA
Maria Rosario Galarza Zelaia
(Iturmendi)

2. eta 3. SARIAK
Miguel Angel Mendinueta Lizarraga (Arbizu)
Araceli Anso Kintana (Etxarri Aranatz)
Jon Miranda Lazkoz (Lakuntza)

Erviti aluminio PVC

Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

ESKELA

Jesús Ijurra Gamboa
1932/12/31 – 2023/07/25



Gizon gozoa eta baketsua, basoa maite zuena, nekaezina, jendeartekoa eta etxekoei maitasun handia emandakoa, gurekin bihotzean

Etxekuek
Etxarri Aranatzan, 2023ko uztailaren 25ean

ESKELA

Jesús Ijurra Gamboa



Gure ondotik joan zara, baina beti izango zaitugu gure bihotzetan.

Etxeko illebak
Etxarri Aranatzan, 2023ko uztailaren 25ean

ESKELA

Jesús Ijurra Gamboa




Agur aittuna, aittuna agur ohore eta bi muxu. Gure artetik joan zara, baina gurekin jarraitzen duzu.

Billobak
Etxarri Aranatzan, 2023ko uztailaren 25ean

ESKELA

David Laguna Aranda
(2023ko uztailaren 20ean hil zen)



Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Mozkorra bidea zure kuadrila
Altsasu

ESKELA

Ana Jesus Marañon Chasco
1962/12/24 – 2023/07/24




Une hauetan gure ondoan egon zareten guztioi, mila esker.

Etxekoak
Arbizun, 2023ko uztailaren 28an

ESKELA

Jose Antonio Guinea Iriarte



"Altsasutik Baldorbara zabaltzen zuen poztasuna, bere bi herrietan itzal handia utziz"

Etxekoak

JAIOTZAK

- **Gabriela Isabel Flores Valle**, uztailaren 18an Altsasun
- **Naida Vera Agirre**, uztailaren 21ean Etxarri Arantzen
- **Aiden Asier Canales Orellana**, uztailaren 21ean Etxarri Aranatzan

HERIOTZAK

- **Miguel Lizarraga Goikoetxea**, uztailaren 14an Urdiainen
- **Jose Juan Juango Salanueva**, uztailaren 23an Lakuntzan
- **Ana Jesus Marañon Chasco**, uztailaren 24an Arbizun
- **Jesús Ijurra Gamboa**, uztailaren 25ean Etxarri Aranatzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90€ / 106,5€ / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
 📧 @Grupolrache
 📘 Grupolrache
 🌐 www.tanatoriosirache.es



Nafarroa 1512 taldea. UTZITAKOA

Disko berria, betiko Nafarroa 1512

Nafarroa 1512 Arbizuko taldeak lau abestiez osatutako disko berria kaleratu du: 'Askatasun haizea'. Betiko letrak eta musika oinarri ditu, baina musikaren "kalitatea" hobetu du boskoteak. Irailean eszenatokietara itzuliko da

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Askatasun haizea disko berria kaleratu du Nafarroa 1512 talde arbizuarra. Taldearen estiloa mantendu dute, baina musikan "kalitatea" bilatu dutela esan dute kideek. Martxoan taldea sortu zenetik abeslaria izandako Txirri agurtu zuten, eta Gaizkari ongi etorria eman zioten. Harekin batera, Rayo bateria joleak, Ulon gitarra joleak, Haritz gitarra joleak eta Estane baxu joleak osatzen dute Nafarroa 1512 taldea.

Azken hiru urteak "gogorrak" izan direla aitortu dute Rayok, Aritzek eta Estanek. 2020. urtean, pandemiaren urtean, *Iraungo du* diskoa kaleratu berri zuten, eta ezin izan zuten zuzenekoetan aurkeztu. Denbora pasata, "gauza berriak jo nahi dituzula konturatzeko zara" eta jendeak ere "zerbait berria" nahi duela azaldu dute, eta disko berria kaleratzeko momentua zela erabaki zuten. "Disko horrek berea eman duela ikusten duzu, eta pixkanaka konturatu

gabe hasten zara hurrengorako gauzak pentsatzen".

Letra eta gai aldetik disko berria besteekin alderatuta "antzekoa" da: "Letrek memoria historikoz eta gertuko historiaz hitz egiten dute; iraultzaileak dira, kalekoak". Musika aldetik "polita" egiten saiatu dira: "Detaile gehiago sartzen saiatu gara, belarrira polita egiteko". Lan melodikoa eta estilo aldetik "klasikoa" dela esan dute musikariek; Street punk eta Oi! estiloen artean mugitzen da taldea, "eta horren baitan musika kalitate hobeagoa" bilatu dute. "Orduak sartu" dizkiote lan berriari.

Iraultzaren metxa, Askatasunaren haizea, Hemen gaude, Arkada Sozial taldeko Hodeirekin, eta *Matxakatu ezin* dira Nafarroa 1512 taldearen EP berria osatzen duten lau abestiak. Bideklipa grabatzeko asmoa dute ere eta diskoa kontzertuetan eta Irurtzungo Pikuxarren, Arbizuko Kiroldegiko tabernan, Etxarriko Xapateron eta Altsasuko Lezea tabernan erosi daiteke, baita Iruñean eta

Gizpuzkoako eta Arabako zenbait tabernetan ere. Binilo formatuan ere kaleratuko dituzte.

Sorkuntza

Diskoaren sorkuntza "prozesu natural bat bezala" izan dela esan dute musikariek, musika berria sortzeko eta jotzeko nahitik sortua. "Konturatu gabe hurrengo diskorako gai berriak pentsatzen hasten gara". Disko berriaren abestiak Aritzek landu ditu, gehienbat, abestiak; aurrekoetan Esatek egin zituela azaldu dute. Aritz: "Lehenengo basea egiten nuen, lokalera eraman eta aldatzen hasten ginen". Ordenagailu programa batekin muntatzen zuten eta "denon gustura" zegoenean ixten zuten abestia.

Askatasunaren haizea Gaizka Nafarroa 1512 taldeko abeslari berriaren lehenengo diska izanen da. "Hamahiru urte izan dira Txirriekin taldean, badira urteak; etapa hau ixteko garaia heldu zen". Aingura eta Sustrai berriak taldean abesten zuten Gaizka "en-

tzunda" zuten, eta bilatzen ari zirena zela ikusi zuten, "ahotsaren aldetik antzekoa da". Proposatu zioten, pentsatu zuten eta onartu zuten. Sustrai berriak taldearekin eta Nafarroa 1512 taldeekin aritzen da Gaizka.

Taldeak "eboluzio naturala" izan du. "Musika, ideologia, asmo eta gauza horiek antzeko mantentzen dira. Borroka ideologikoa egiten dugu eta ongi pasatzen dugu". Zuzenekoetan sorreratik dauden zaleei belanaldi berriak kontzertu gutxiago ematen dituzte orain: "Lehen gazteagoak ginen eta deitzen ziguten toki guztietara joaten ginen. Orain, behar bada, kontzertuak filtratzen saiatzen gara beste egin behar batzuk ditugulako. Bestela, saturatzen zara asteburuero hemendik hara ibilita".

Maiatzaren 27an Arbizuko Argi Bidea gazte elkartearen urteurrenerako antolatutako jaialdian Nafarroa 1512 taldeak herrian egiten zuten "fundamentuzko" lehenengo kontzertua eman zuten. "Aurretik jo izan dugu, baina elkartearen moduxumeago batean". Gainera, elkartearen urteurrena zenez eta "denak" kideak izan zirenez, "bereziagoa" izan zen, "emozionantea". Gaizkak "gertu" ematen zuten lehenengo kontzertua izan zen ere.

Sanferminetan Oinez Txokoan emandako kontzertuaren ondoren lasai hartuko dute uda, eta Nafarroa 1512 taldea irailean itzuliko da. Momentuz, irailaren 22an Donezteben egingo den Gazte burrunban egongo da, irailaren 23an Amurrioko gaztetxean eta irailaren 29an Bibo Rock Aretoan.



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Hau baino luzeagoa, kostako zaizue

Zartakoak kale egin du eta ez digu azkenean buruan koskorrik egin. Telebistetako tertuliakide guztiek, iritzi-azterketa guztiek, bete-betean joko gintuela errepikatu digute behin eta berriz; eta jende asko beldurrez zegoen, gezur horiek guztiak sinetsita.

Argi dago Goebbelsen leloa betetzen dela oro har, alegia, gezur bat hamaika aldiz errepikatzen bada, jendeak egia dela sinetsiko duela. Eta hala gertatu da oraingoan ere, hainbeste aldiz entzun dugu gehiengo luze bat LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideen aurka zegoela, gehiengo luze batek independentisten botoarekin lortutako aurrerakuntza sozialak gaitzesten zituela, gehiengo luze batek salatzen zuela "Soilik Bai da Bai" legeak gure kaleak bortxatzailez betetzen zituela, azkenean gezurrak sinetsi ditugula eta udan egon arren, neguan egongo bagina bezala hotz ikaragarria sentitu dugula.

Altsasuko Marzelino Ansa gazteak, 1971n 15 urte zituenak, "Umeen deia" liburuan gehiengo "luze" horren inguruan argia eman diezagukeen ipuin eder bat utzi

zigen. Berak kontatzen zuenez, gerra denborako arratsalde batean jeneral bat sartu omen zen Sakanako etxe batean eta bere soldaduentzat lo egiteko leku bat ematera behartu zituen etxeakoak. Etxeko andreak ganbara utzi zien eta han hartu zuten ostatu soldaduek eta beren jeneralak. Leku ederra zirudien troparentzat, hala eta guztiz ere, gaua ailegatu zelarik, konturatu ziren argirik ez zegoela eta, orduan, jendetasunik batere ez zuen jeneral hark ozenki oihukatu zuen erdara hutsean eta modu txarrean: "Luz!"

Etxeko aitonak agindua (edo, hobeto esanda, oihua) entzun zuen eta, berehalaxe, bere aukeratik altxatu eta egurtegira atera zen. Handik egur "luze" bat aukeratu zuen eta huraxe igo zion ganbarara aginduak oihuka ematen zituen jeneral harropuzari, hitz hauek esaten zizkion bitartean: "Hau baino luzeagorik aurkitzea kostako zaizu".

Gauza bera gertatu zaie gezurti hauei, "gehiengo luzea" izan ordez, "egurra" jaso dute, "luzeagorik bilatzen kostako zaie" hemendik aurreragoko lau urteotan.

Bizitzaren "Olinpiadak" bi "kinkien" ikuspuntutik

'Kinki Games' Jon Barbarinen eta Txori Garcia Urizen konpainiaren lan berria da. Angel Sagues antzerkigileak zuzendu du. Bestetik, Barbarin Ihabarko udako antzerki tailerraren antolakuntzarekin eta entseguekin ari da ere

E. R. B. IHABAR

2022ko Ihabarko festetan *Kinki Games* ikuskizunaren aurre-estrenaldia "antzeko bat" egin zuen Txori Garcia Uriz eta Jon Barbarin aktoreek osatzen duten Amico konpainiak eta aurten lana "berriz" hartu dute eta gauzatxo batzuk aldatu dituztela esan du Ihabarren bizi den Barbarinek. "Publikoarekin funtzionatzen duena eta ez duena probatzen duzu, eta aurten ikuskizuna, printzipioz, itxita gelditu da". Larunbatean, uztailak 29, 19:00etan, Etxarrengo festetan emanaldia egingen dute, eta Irurtzungo festetan ere aritu ziren. Abuztuaren zehar bai *Kinki Games* bai *Amico on the beach* konpainiaren aurreko antzezlanarekin Fragan, Miranda Argan eta zenbait tokitan egonen dira.

Angel Sagues antzerkigileak zuzendu du *Kinki Games*. "Aspalditik ezagutzen dugu Sagues, eta aurreko ikuskizunak gure kabuz egin ditugu, baina pasa den urtean berari esan genion sorkuntzan krisia izan genuelako". Barbarinek azaldu duenez, ez zitzaion ezer ateratzen, "kostatu zitzaigun". Sagues deitu zuten eta berak sortutako eta zuzendutako istorioa da *Kinki Games*.

Oinarrrian Joko Olinpikoak daude, baina "gure erara" moldatuta: "Bi kinki dira, estetikoki 1980ko eta 1990ko hamarkadan eramaten ziren txandalak janzten dituzte, C. Tangana eta jende hau imitatuz, eta furgoneta txuri batekin goaz saltzaile moduan". Baina ikuskizunak kirolari buruz hitz egiten du eta horren barruan "bizitzaren olinpiadak" daude ere: "Jaiotzen gara, umeak gara, gero gaztetxoak, eta helduak garenean kompetentzia, estresa, ez dakit zer... agertzen dira".

"Angelekin askotan egin dugu lan, oso ezaguna dugu eta berak ere ezagutzen gaitu. Oso gustura egon ginen berarekin". *Amicoren*



Amico konpainiaren 'Kinki Games' ikuskizuna. UTZITAKOIA

"IHABARKO ANTZEZLANEAN GERTATUKO DIREN GAUZAK BERTAKOAK IZANGO DIRA"

ikuskizunekin alderatuta desberdintasun nagusia Saguesek zuzendu duela da: "Angeli kutsu sozial hori sartzea gustatzen zaio, eta kasu honetan sartu dugu. *Amico on the beach*, esaterako, dibertigarriagoa da, besterik gabe, ez du bigarren zentzu bat. Lehenengoak bai gerrari eta adiskidetasunari buruz hitz egiten du". Dantza gehiago dagoela eta koreografikoagoa dela ere aipatu du Barbarinek.

Antzerki herria

Ihabar antzerkiaren herria bihurtzen da udan. Aurten Ihabarko udako antzerki tailerraren hamalagarren edizioa egingen dute, eta abuztuaren 25ean eta 27an, ostirala eta igandea, 22:00ak inguru, antzezlan berri bat egingen dute, momentuz "sekretua" dena. "Duela gutxi elkartzeko hasi gara. Aurreko urtean *La vida de Brian*

egin genuen eta aurten ere erromatarrak agertuko dira, pixka bat jantziak amortizatzeko ere". Komiki baten istorioa moldatuko dute, Ihabarrera ekarrita. "Gertatuko diren gauzak eta pertsonaiak bertakoak izango dira. Bertako izaera eta abar agertuko dira". Gutxi gorabehera udako antzerkian 50 bat herritarrek parte hartzen dute, "haurrak eta helduak kontuan hartuta". Gutxienez, astean bitan elkartzeko dira antzerkia sortzeko. "Kristoren saltsa da. Guztien artean egiten dugu: eszenografia, jantziak...". Barbarin zuzendaria da eta Izaskun Mujikarekin batera gidioa osatzen dute, istorio batean oinarrituta propio bat sortzen.

Ihabarko antzezlanaren ekimen garrantzitsua bihurtu da. "Herrietatik jendea etortzen da eta dagoeneko galdezka hasi dira ea aurten egingo den, noiz eta abar. Hamalagarren urtea da, eta ahoz ahokoak asko egin du". Aurreko urtean publikoan 600 bat pertsona egon zirela esan du Barbarinek.

Ikasturtean zehar udalak antolatutako antzerki tailerra ere egingen dute, otsailetik maiatzera.



'Azken fakirra?' ikuskizunaren aurre-estrenaldia Irañetan. JABI TRAPERIO

'Azken fakirra?' ikuskizunaren aurre-estrenaldia egin dute

Irañetan aurkeztu du Zirika Zirkus konpainiak zirkua eta magia uztartzen dituen ikuskizun "komikoa"

E. R. B. IRAÑETA

Zirika Zirkus konpainiak Irañetan bere lan berriaren aurre-estrenaldia egingen ditu. "Beti egingen dugu eta pila bat eskertzen dugu", esan du Ainhoa Juaniz konpainiakokideak: "Oso publiko ona da; gustatzen zaigu jendea etortzea lantzen dutelako ere". Konpainiarendako "termometro" bat da, "hor funtzionatzen duena, horrela gelditzen da". Aurre-estrenaldian jasotako *feedback*-arekin lana "hobetzen" joaten dira. Asteartean, uztailaren 25ean, aurre-mustuzuten Irañetan konpainiaren lan berria: *Azken fakirra?* "Jende pila bat agertu zen, gradak bete ziren eta atzean ere jendea zutik zegoen".

Ikuskizunean 180 bat urte dituela esaten duen fakir bat agertzen da eta jubilatzeke eta jubilatuen gauzak egiteko garaia heldu zaio la uste du, azaldu du Juanizek. Bigarren pertsonaia bere iloba da, fakirra izan nahi duena, baina oso beldurtia dena: kristalei, suari, ilarrei eta abarrei beldurra die. "Ikuskizun oso komikoa da". Orduan, bien artean fakirren ikuskizun bat egingen dute eta iloba beldurra gaintzen doa.

Zirika Zirkusen ikuskizuneko beti dute zentzu didaktikoa, eta *Azken fakirra?* ikuskizunean, besteak beste, maskulinitate toxikoa landuko dute. Ez da ikuskizunaren gai nagusia, baina hori islatu nahi dute ere. "Bi gizonen arteko, osaba eta ilobaren arteko, harreman polit bat agertzen da. Osabak beti errefortzu positiboa erabiltzen du, zer ongi ari den esaten dio, besarkatzen du...".

Horrelako ikuskizun batean barrigura sortzeko errazena pertsonaien arteko lehian erortzea dela esan du Juanizek, baina Zirika Zirkusek beste alde batetik jo nahi izan du. Ez da ikuskizunak landuko duen gai bakarra: "Beldurra "ez da arazo bat, emozio bat da, norberaren onartu behar ditugu". Gauzak egiteko beldurra "ezinbestekoa" da.

Barregarria

Azken fakirra? ikuskizunean ere magia egongo da. "Ikuskizun komiko bat da, zirkua dago, baita magia ere. Magiak garrantzia handia du". Truko handiak egingen dituzte: "Gillotinarekin azenarioa moztu, ezpata lepotik sartzea eta beste aldera pasatzea... Nik askotan ikusi dut, eta hala ere gaizki pasatzen dut".

Ikuskizun "oso dibertigarria" da, eta irrintarrek oso ongi pasa zutela esan du Juanizek. "Hoberena da oso ongi pasa zutela aitona-amonek, ume txikiak eta, zailena dena, 10 eta 12 urteko gaztetxoak. Horiek topera egon ziren".

Hurrengo urratsa ikuskizuna hartu eta bueltaren bat ematea izango da: "Zer falta zaion, zati honetan erritmo pixka bat gehiago eman edo beste hau oso luze gelditzen da eta moztu behar da...". Zirika Zirkusen lan berriaren bidea hasi da, eta zenbait data itxita ditu; besteak beste, Gaiarre antzokiko fatxadaren urtero egingen duten emanaldia euskaraz eta gaztelaniaz. *Hemenedikara!* ikuskizunarekin ere "hemendik hara" ibili dira.



Izurdiagako adobezko labea egiteko auzolanean parte hartu dutenetako batzuk, bobeda egin baino lehen. Ezkerrean, Igor Osacar.

"Labe honek herria egin du; hori da bere balioa"

Izurdiagako elkartearen kanpoaldean adobezko labea egiten ari dira izurdiagarrik, auzolanean; Igor Osacar Izko kisuskila buru dutela. Arakilgo Egunean bobeda jarri zioten, eta azken ukituetan ari dira. Aurki egongo da erabilgarri

Maidar Betelu Ganboa IZURDIAGA

1 Nola bururatu zitzaizuen adobezko labea egitea?

Aurretik parrilla batzuk zeuden, nahiko hautsita zeudenak. Duela hiru urte, pandemiaren aurretik, bertan adobezko labea egitea erabaki genuen. Herrietako antzinako ia etxe guztietan erabiltzen zen adobe, Izurdiagan ere bai, eta material hori balioetsi nahi genuen. Gauzak beste modu batez eraiki daitezkeela erakutsi. Elkarrean duela 40 urte inguru auzolanean jaso zen, eta adobezko labea ere auzolanean egitea erabaki genuen, orduko herritarrek nolabait omentzeko.

2 Nolako labea da?

Hego Ameriketara egindako bidaia batean ikusi genituen labeak bereziak iruditu zitzaizkidan. *Tacho horno* deitzen zaizkie. *Tacho* hitzak bidoia esan nahi du; bidoia erabiltzen baita. Txapazkoak izaten dira, baina gurea altzairu herdoilgaitzekoa

da. Halakoak hemen ez dira oso ezagunak; iglu itxura duten labeak dira ohikoagoak.

3 Barruan altzairuzko bidoia duen adobezko labea da zuena.

Hala da. Bidoian parrillak jartzen dira, elikagaiak kozina daitezten.

4 Eta non pizten da sua?

Egurrezko labeak su zuzenekoak edo zeharkakoak izan daitezke. Zuzenekoan sua bertan pizten da, eta suaren keak parrilletan dauden elikagaiak ukitzen ditu. Aldiz, gurea zeharkako labea da. Bidoiaren azpiko beheko suan pizten da sua. Suak bidoia eta adobezko adreiluak berotzen ditu, baina kea ez da bidoi barrura sartzen; tartean geratzen den espaziotik doa kanpora, bidoian kozinatzen ari diren elikagaiak ukitu gabe. Beheko sua piztuta, berehala has daiteke kozinatzen.

5 Nolako izan da labea egiteko prozesua?

Hasieran adobezko adreiluak egin genituen buztina, harea eta lastoa nahastuta. Material garbiagoak erabiltzea gustuko dut. Nafarroan buztina saltzen ez denez, Errioxatik ekarri genuen. Duela hiru aste inguru egin genituen, auzolanean, eta lehortzen jarri genituen.

6 Kisuskila zarenez, zure esanetara ariko ziren guztiak.

(Kar, kar). Jende askok parte hartu du, eta oso gustura ibili gara. Niretako, labe honek duen balio nagusia auzolana da. Horrek ez du preziorik.

7 Noiz muntatu zenuten labea?

Arakil egunaren bezperan, astelehenean. Labearen oinarria egin genuen, eta bidoia kolokatu genuen. Arakilgo eguneko festa giroan lan politena egin genuen, jendaurrean: labearen goiko bobeda, adobezkoa.

8 Arakilgo egunean ikusmina piztuko zuen labeak.

Kuriosoa izan zen. Herri bazkariaren ondoren, Lorena Arangoaren sketchekin eta Ane Martijaren eta Makusairen kontzertuekin giro polita egon zen.

9 Zein izan dira hurrengo pausoak?

Asteazkenean bidoiari azpiko alzak kendu genizkion, eta bidoia ongi kokatu. Pixka bat jaitsi zen, goian eta behean kea zirkulatzeko espazioa ziurtatuz. Bobeda ere ongi eusten zela ikusi genuen. Azkenik, labearen aurrealdea eta atzealdea itxi genituen. Lisatu, eta itxura polita eman.

10 Guztia ongi lehortzea da bukatzeko falta den bakarra.

Behin itxita, erabili daiteke. Halako obrak egiten ditudanean,

berehala labea martxan jartzen dut, egon daitezkeen akatsak, pitzadurak edo dena delakoak ikusi, konpondu eta labea lehortzen joateko. Eta ondoren isolatzailea jartzen diot, buztina eta lastoarekin egindakoa.

11 Bazkariren bat egin beharko duzue labea mustutzeko.

Ez dugu ezer zehaztu, baina norbaiti entzuna diot bi arkume dituela prest...

12 Egindako lanarekin pozik?

Oso. Izurdiagarrek gure harremana sendotu dugu, eta hori da pozgarriena. Labe horren balio nagusia sortu duen herria da. Labeak herria egin du. Izurdiaga herri sakabanatua da, eta honek herritarrak bildu gaitu.

ERALDATU

zure irudia

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
 info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus